

arteka

**FRANKISMOA,
KLASE DIKTADURA**



— **F**rankismoa aztertzea ezin daiteke izan nostalgia antifaxistaren ariketa etxekotua, ez eta arkeologia moralaren ariketa hutsa ere. Guk defendatzen duguna da Erregimena eraldatu eta modernizatu egin zela horixe exijitzen zuelako garaile irtendako nazioarteko ordenak; hala, egiteke dugun zeregina ez da handik jaiotako mozerro demokrata perfektionatzea, baizik eta behin betiko garaitzea haren oinarri den klase dominazioko sistema.

6	EDITORIALA <i>Arteka</i>	Frankismoa: ordenaren bermatzaile
8	KOLABORAZIOA Marina Segovia	Frankismo garaiko gizarte-babesa eta oinarri ideologikoak (1939-1975)
22	KOLABORAZIOA Lisabe Velasco	Gerraostearen itzal luzea: frankismoaren biziraupena Bigarren Mundu Gerraren ondoren
36	KOLABORAZIOA Jon Larrabide	Frankismoaren koordenatu orokorrak
50	KOLABORAZIOA Leire Andino	Frankismoa: Espainiako kapitalismoa egonkortzeko zutabe ezkutua
66	KOLABORAZIOA Leire Laborda	Frankismoa eta hizkuntzak

Frankismoa: ordenaren bermatzaille

Editoriala

Franco hil zenetik 50 urte bete diren honetan, ahalegin handia egin da efemeride hori Trantsizioaren apologia bilakatzeko, bai eta diktadorea hil ondoren klase burgesaren diktadurak hartu zuen formaren, demokrazia parlamentarioaren, apologia bilakatzeko ere. Tejero estatu-kolpea jotzen saiatu zenetik ia 45 urtera, ordenaren alderdiaren ezker hegala, PSOE zaharkitua buru duela, frankismoaren itzala xaxatzen ahalegintzen da oraindik ere, denoi sinetsarazi nahirik gaur bizi duguna, txarra izanik ere, miretsia eta apreziatua izan behar dela, diktadura frankistaren 36 urte ilun haiek baino hobe delako.

Behartutako etsitze eta konformismo hori giltzarri izan da Espainiako Estatuan eta, bereziki, Euskal Herrian existitu diren aukera iraultzaileak itotzeko hainbat belaunalditan zehar. Hain zuzen ere, gerran eta gerraostean exekutatutako 150.000 pertsonen eta ondoren eraildako 25.000 pertsonen heriotzaren bitartez masetan piztutako terroraren bitartez, proletario-sarraski horren borregoa lasai-lasai zendu zen ohean, bere papera bete duenaren kontzientzia lasaiarekin. Frankismoa, haren garaikide izan ziren gainerako faxismoak bezalaxe, burgesiaren lema-kolpe bat izan zen, bere esplotatzaile-pribilegioa arriskuan ikusi baitzuen.

Frankismoa aztertzea ezin daiteke izan nostalgia antifaxistaren ariketa etxekotua, ez eta arkeologia moralaren ariketa hutsa ere. Guk defendatzen duguna da Erregimena eraldatu eta modernizatu egin zela horixe exijitzen zuelako garaile irtendako nazioarteko ordenak; hala, egiteke dugun zeregina ez da handik jaiotako mozorro demokrata perfektzionatzea, baizik eta behin betiko garaitzea haren oinarri den klase dominazioko sistema.

Izan ere, Ekialdetik zetorren haize gorriak ikaragaitza, kapitalistek ez zuten zalantzarik egin: estatu liberala bertan behera utzi zuten militantzia iraultzailea purgatzeko, ia guztiz desagerrarazi arte heriotzaren, torturaren edo erbestearen bitartez.

Horregatik esan dezakegu diktadura frankistak eta Trantsizioaren ondorengo ordena sozialak hari berari jarraitzen diotela iraultzaren aukera zapaltzeko eta burgesiaren diktadurari eusteko bidean. Hala, klase menderakuntzak 1978ko konstituzioa baliatuta hartu zuen forma berriaren pean berdin mantendu ziren politikariak, epaileak, enpresariak, militarrek, hedabideak, poliziak, etab.

Alabaina, ordenaren alderdiaren ezkerreko hegalararen ordezkari nagusia, PSOE, etengabe saiatzen da diktadorearen heriotza hiato bat izan zela defendatzen eta ospatzen, gizartearen funtzionamenduan irekitako amildegi gisa aurkezten, bai eta aldaketa gidatu zuten figurak goraipatzen ere. Azken finean, ahalegintzen dira frankismoa Estatuaren historiako kapitulu ilun eta isolatu gisa baztertzen, une jakin bateko desbideratze bat izan balitz bezala. Defendatzen dutenaren arabera, Estatuaren zoramen iragankor bat izan zen, Felipe Gonzálezek onbideratu zuena estatu-gidaritza hartu zuenean, eta estal ditzagun oihal lodiz ZEN plana, GAL, heroina, Moncloako Akordioak, langabezia, autonomien estatua, NATO, etab.


Burgesiaren alderdiaren eskuin hegala, bere aldetik, ezin du ezta hauteskunde kanpainarik ere egin iragan ilun horrekin; ondorioz, negazionismoaren bidea hartzen du. Arekak ireki baino nahi ez dutenei itxita zeuden zauriak irekitzea leporatzen diete, eta iraganaren azterketa materialista historikoan oinarritutako egungo politikaren irakurketa oro *gerrazibilismotzat* kondenatzen dute. Gutxienez horretara mugatzen ziren, hein handi batean, orain arte; izan ere, gaizki antzeztutako disimulu hori latsa galtzen doa faxismoaren zigorgabetasuna agerian gelditu ahala, eta pixkanaka San Juanen arranoen eta beso altxatuen apologia latsagabe bihurtzen da.

Bistako desberdintasunak desberdintasun, bi bloke politikoei jarduten dute frankismotik jasotako ordena sozial beraren bermatzaille gisa: batak erretorika demokratiko eta memorialista hutsez makilatzen du; besteak, aldiz, konplexurik gabe aldarrikatzen du, aurrekoen klase kontziliazioko politikak baimentzen duen neurrian. Edozein sako-neko zalantza planteatzen denean, biek ala biek demokraziaren aurkako arrisku gisa seinalatzen dute, biak ala biak ahalegintzen dira iraganari eta orainari buruzko klase irakurketa oro desaktibatzen eta memoria historikoa joko-zelai sinboliko eta kaltegabe batera murrizten. Bien arteko pintza horren aurrean, frankismoa aztertzea ezin daiteke izan nostalgia antifaxistaren ariketa etxekotua, ez eta arkeologia moralaren ariketa hutsa ere. Guk defendatzen duguna da Erregimena eraldatu eta modernizatu egin zela horixe exijitzen zuelako garaile irtendako nazioarteko ordenak; hala, egiteke dugun zeregina ez da handik jaiotako mozorro demokrata perfektzionatzea, baizik eta behin betiko garaitzea haren oinarri den klase dominazioko sistema. ●

FRANKISMO GARAIKO GIZARTE- BABESA ETA OINARRI IDEOLOGIKOAK (1939-1975)

Testua — **Marina Segovia**

Irudia — **Amaiur Ruiz**



Internazional Komunistaren VII. Kongresuan aurkeztu zuen faxismoaren inguruko txostenean, Dimitrov-ek baieztatu zuen faxismoaren garapenak eta diktadura faxistak berak *hainbat forma* hartzen zituela herrialdearen arabera, baldintza historiko, sozial eta ekonomikoak, ezaugarri nazionalak, eta herrialde bakoitzaren nazioarteko posizioa kontuan hartuta. Italiako faxismoa eredu hartutako Europako beste zenbait prozesurekin dituen antzekotasun ideologikoak gorabehera, Espainiako faxismoaren garapean berezitasunak azaleratzen zaizkigu lurraren banaketa desorekatuari, Eliza katolikoaren pisuari, burgesiaren garapen mugatu zein berantiarrari eta ezarritako tradizio erreakzionarioari lotuta. Alemaniako Langile Alderdi Nazionalsozialistak (NSDAP) eta Mussoliniren Alderdi Nazional Faxistak (PNF) sistema politiko demokratikoa manipulatuta lortu zuten Parlamentuaren kontrola bere egitea. Mussoliniren kasuan, Erromarako Martxaren ondoren, Viktor Emanuel III.a erregearekin adostasun batera heldu, eta gobernuburu bihurtu zen. Monarkaren eta eliteen sostengua baliatuz, irabazleei mesede egiten zien hauteskunde lege bat sortu zuen (Acerbo Legea) eta, lege horri esker, gehiengo osoa lortu zuen *Nazionale* zerrendak, hau da, faxistek, kontserbadoreek eta liberalek osatutako koalizioak. Gauza jakina da Weimarko Errepublikaren ahuleziak eta naziek hauteskundeetan lortutako arrakastak Paul von Hindenburg Alemaniako presidentea Hitler kantziler izendatzera eraman zutela.

Bestelakoa da Espainiako Estatuaren kasua; izan ere, Primo de Riveraren diktadurak ekarritako esperientzia autoritarioaren hondoratzea eta II. Errepublikaren aldarrikapena kolpe gogorra izan ziren eskuin monarkikoarentzat. Hala, zatikatuta eta bereizita egonik, erregimen demokratiko liberal berriaren aurkako konspirazio estrategia hartu zuen lehen momentutik. Falangistak eta tradizionalistak aurrez aurre eta sakabanatuta ageri dira sigla-zopa batean. Ramiro Ledesma eta Onésimo Redondok Ofentsiba Nazional-Sindikalisten Batzordeak (JONS) sortu zituzten; José Antonio Primo de Riverak sortutako Espainiako Falangearekin bat egingo zuten gero, 1934an. Bat-egitea bientzat bultzada izan bazen ere, 1936ra arte gutxiengo alderdia izan ziren, “jauntxoan” estamentuari ezinbestean lotuak. José Antonioren lehen miresleen artean jatorri burgeseko gazte unibertsitarioak ziren nagusi, eta langile klasea –gehienetan UGT eta CNTren ingurukoa– erakartzeko egin zituen lehen saiakerak antzuak izan ziren.

Estatu-kolpeak eta Gerra Zibilak, elite ekonomikoen, sozialen, militarren eta eklesiastikoen laguntzarekin, nabarmen egin zieten mesede falangistek eta tradizionalistek. Nola metodo eskuadristek hala falangista eta jonsisten dialektika bortitzak baldintza hobeetan kokatzen zituzten mobilizatzeko egarrit zeuden zibilak beren lerroetara batzeko, Eskuin Autonomoen Espainiar Konfederakundearekin (CEDA) alderatuta. Beren aldetik, erreketek tradizionalistek gerra karlista berri baten gisan ulertu zuten gatazka, beren bastioi historikoetatik. Italiako eta Alemaniako kasuetan ez bezala, estamentu militarren papera giltzarri izan zen Espainiako Gerra Zibilaren amaieran, eta militar afrikanisten interesek desplazatu egin zituzten alderdi faxistaren interesak; gerora, Francok bere gidaritzapean tresna politiko bihurtuko zituen.

Gerraren amaierak aldi homogeneoa ekarri zuen, eta aldi berean aurreko gertakarietatik bereizteazina; hau da, huts egindako iraultza soziala eta Gerra Zibila. Prozesu historiko bat moztu zen, baina bistakoa da frankismoaren agerpena ez zela gertakari espontaneo izan, baizik eta Berrezarkuntzaren erregimen politikora itzularazten gaituen aurrekari multzo baten emaitza.

Internazional Komunistaren VII. Kongresuan aurkeztu zuen faxismoaren inguruko txostenean, Dimitrov-ek baieztatu zuen faxismoaren garapenak eta diktadura faxistak berak hainbat forma hartzen zituela herrialdearen arabera, baldintza historiko, sozial eta ekonomikoak, ezaugarri nazionalak, eta herrialde bakoitzaren nazioarteko posizioa kontuan hartuta

JAZARRALDI MILITARREN MENDEA

XIX. mendean, progresistek askotan matxinada militarren bidez baino ezin zuten esku hartu politikan, borboiek gobernu moderatu eta kontserbadoreen alde egin baitzuten Maria Kristinaren erregeordetzatik eta Isabel II.aren erregealditik aurrera. 1820an Riego generala Cabezas de San Juanen Fernando VII.aren erregimen absolutista berrezarriaren aurka altxatu zenean sortu zen “jazarraldi militar” terminoa, nahiz eta hori ez izan lehen jazarraldi militarra. Seiurteko Absolutistan zantzu liberaleko jazarraldi militarrek ugaritu ziren: Espoz y Mina 1814an, Díaz Porlier 1815ean, Richart 1816an, edo Lacy eta Milans del Bosch 1817an. Hala ere, guztiek porrot egin zuten, Riegorena heldu zen arte. San Luisen Ehun Mila Semeen esku-hartzetik abiatutako berrezarpen absolutistak Hamarkada Absolutista inauguratu zuen. Garai hartan nabarmentzekoak dira Valdes koronelak 1824an egindako jazarraldi liberala, urte horretan bertan Bessières eta Capapé egindako zantzu absolutistadun jazarraldia, eta, batez ere, Torrijosek 1831an egindako jazarraldi liberala. Gerra karlistekin are gehiago handitu zen estamentu

militarren protagonismoa, eta militarren esku-hartzea normalizatu egin zen politika parlamentarioan. Errege Estatuaren garaia, 1834tik aurrerakoa, ezegonkortasun politikoak ezaugarritu zuen: 1835eko Cordero eta Quesadaren jazarraldi progresista, esaterako, eta horri segida eman zion 1836ko abuztuko La Granjako jaikiialdi militarra, 1812ko Konstituzioa berrezarri zuena. Maria Cristina erregina gobernatzaileak Espartero jeneralak agintera igotzearekin batera amaituko zuen bere erregeordetza. Progresistek jazarraldiak erabili zituzten boterea konkistatzen saiatzeko moderatuek garai hartan sortutako monopolioan, Hamarkada Moderatua izenekoan, alegia; hau da, Isabel II.aren egiazko erregealdiaren hasierako garaian.

Denborarekin, aukera politikoeziko autonomia militarra handituz joan zen. Esku-sartze militarren helburua ez zen derrigorrez fakzio edo alderdi politiko bati mesede egitea, ordura arte ohikoa izan zen bezala. Aldaketa hori hainbat arrazoiengatik gertatu zen, eta Seiurteko Demokratikoan hasi zen garatzen. Bi erregimenetako ezegonkortasun politikoak –Amadeo I.aren monarkia demokratikoa



eta I. Errepublikak-, Kubako gerrek eta hirugarren gerra karlistak, eta langile-mugimenduaren eta kantonalismoaren kemenak kuarteletan ofizialtasunaren interes korporatiboen defentsarako joera handiagoko jarrera berri bat sortu zuten, aukera alderdikoia albo batera utzita. Alderdi eta aukera politikoeziko autonomia horrek arrakasta izan zuen Berrezarkuntzako sistema canovistan. Cánovasek ahalegin berezia egin zuen militarrek iskanbila politikotik aldentzeko, eta arrakasta nabarmena izan zuen, baina 1898ko Hondamendiak egoera nahastu eta, beste faktore batzuekin batera, gero eta militarismo handiagoa ekarri zuen.

Aldi berean, estamentu militarren eta gizarteko maila zabalen deriba erreakzionarioa eragin zuen beste arrazoi bat nortasun nazionala eraikitzeke prozesuan bilatu behar da, oso lotua honako mito honen zabalpenarekin: herria, askatasun nazionalaren aldeko borrokalari heroiko gisa.

Mende amaieran, joera kontserbadorea are gehiago sendotu zen, “1898ko Hondamendia” izenarekin ezagutzen denaren ondorioz; alegia, Espainiak bere azken jabetza kolonialak galtzea. Kubako gerra gaiztotu ahala, errekrutamendu militarren kontrako iritziek protestak eta konforme ez zeuden herritarren desadostasun eztrandak eragiten zituzten kintoen zozketa beldurgarrien aurrean. Gainera, familia dirudunek kontribuzio baten truke beren semeak libra zitzaketen. Egia esan, porrotaren ondorengo hondamendiaren kontaktak zenbait sektore intelektualen eta klase ertainen kezkei erantzuten zien eta ez zuen klase herrikoiaren sentipena islatzen, zeinak arinduta sentitzen baitziren “odolaren ekarpen” gorrotagarriaren amaieragatik. Hazten ari ziren Europako potentziek Berlingo Konferentzian beren inperioak finkatzen zituzten bitartean, Europako intelektualen artean orokortu egin zen “hilzorian zeuden nazioen” eta “arraza latinoaren” gainbeheraren inguruko ikuspegi peioratiboa. Porrotak eragindako kolpe emozional gogorrari eta umiliazioari erantzunez, kazetari, idazle eta politikari liberalek Espainia birsortzea

edo erregeratzea proposatu zuten. Proposamen erregerazionistek kritikatu egiten zuten ustelkeria, hauteskundeetako faltsutzeak eta kazikismoa, eta boteretik abiatutako sistema politikoaren erreforma sakona proposatzen zuten. Joaquin Costa idazle eta politikari erregerazionistak, *Oligarquía y caciquismo como forma actual de gobierno en España: urgencia y modo de cambiarla* lanean (1920), herrialdeko gaitzak sendatzeaz arduratuko den burdinazko zirujau baten jarduera proposatu zuen: “(...) Kirurgia-politika horrek, berriro diot, burdinazko zirujau baten kargu pertsonala izan behar du, Espainiako herriaren anatomia ondo ezagutzen duen eta harenganako erruki amaigabea sentitzen duen baten kargu (...)”.

Figura horrek nahitaez arlo militarretik etorri behar zuen eta Miguel Primo de Riverak gorpuztu zuen. Hark, Costak proposatutako ideia erregerazionistak bere eginez, Berrezarkuntzaren sistema politikoari amaiera eman behar zion zirujautzat zuen bere burua.

Aldi berean, estamentu militarrek eraldaketa sakona jasan zuen Berrezarkuntzan. XX. mendeko lehen hamarkadetan joera liberal-aurrerakoi zabala zuen estamentu horrek, bere garaian asaldagarritzat jotzen zena, baina gerora pentsaera atzerakoi nabarmenerako bira egin zuen. Hori ezin da ulertu afrikanismoaren osagaia kontuan izan gabe, zeina 1921etik aurrera finkatu baitzen, Marokoko protektoratu espainiarra ezartzearekin batera. Mundu ikuskera bera zuten ofizial talde bat eratu zen orduan, elkartasun lotura sendoek eta Marokoko kanpainetan sortutako identitate komunak elkartuta. “Familia militar” horrek, sustraiak 1898ko krisi inperialistan zituenak, Zaragozako Akademia Orokor Militarrean aurkitu zuen bere eragin tresna nagusia gerraosteko aldi kolonialistan. Marokoko protektoratuan nazioaren ikuspegi autoritarioa zuten ofizialen belaunaldi bat sortu zen, kide zituen, besteak beste, Francisco Franco, José Sanjurjo edo Emilio Mola. Baliabidez hornituta eta Espainia “erregeratzeko” behar espiritualaz konbentzituta, Gerra Zibila piztu zuen 1936ko uztaileko estatu kolpearen buru izango ziren.

Joaquin Costa idazle eta politikari erregerazionistak, Oligarquía y caciquismo como forma actual de gobierno en España: urgencia y modo de cambiarla lanean (1920), herrialdeko gaitzak sendatzeaz arduratuko den burdinazko zirujau baten jarduera proposatu zuen: “(...) Kirurgia-politika horrek, berriro diot, burdinazko zirujau baten kargu pertsonala izan behar du, Espainiako herriaren anatomia ondo ezagutzen duen eta harenganako erruki amaigabea sentitzen duen baten kargu (...)”



Mundu ikuskera bera zuten ofizial talde bat eratutako “familia militar” batek, sustraiak 1898ko krisi inperialistan zituenak, Zaragozako Akademia Orokor Militarrean aurkitu zuen bere eragin tresna nagusia gerraosteko aldi kolonialistan. Marokoko protektoratuan nazioaren ikuspegi autoritarioa zuten ofizialen belaunaldi bat sortu zen, kide zituenak, besteak beste, Francisco Franco, José Sanjurjo edo Emilio Mola. Baliabidez hornituta eta Espainia “erregeneratzeko” behar espiritualaz konbentziturak, Gerra Zibila piztu zuen 1936ko uztailleko estatu kolpearen buru izango ziren.

GARAILEAK ETA GARAITUAK

1931n II. Errepublika aldarrikatu zenean, alderdi monarkikoak desagertu egin ziren eta noraezean zeuden klase kontserbadoreek jarduera politikotik at geratzea erabaki zuten. Hala ere, bi aste baino igaro ez zirela, propagandista katoliko batzuek *Acción Nacional* plataforma sortu zuten, handik urtebetera *Acción Popular* izena hartuko zuena. Erakunde politiko horrek jarriko zituen Jose Maria Gil Roblesek zuzendutako CEDA sortzeko oinarriak. CEDA katolizismo politikoak sustatutako eskuin masen erakundeak izan zen. Hain zuzen ere, errepublikaren garaiko berrikuntza nagusietako bat masarakunde politikoen sorrera izan zen; masa horiek ez zuten beren parte-hartze politikoa esparru parlamentariora mugatzen. Eskuinean, CEDA izan zen estrategia hori hartu zuena. Alderdi bat baino gehiago, alderdien koalizio gisa uler daiteke, koalizio bat Eliza katolikoaren eta klase kontserbadoreen interesen defentsaren pean hainbat lurraldetako beste erakunde eskuindar batzuk integratzen zituenak. Erlijioaren, jabetza pribatuaren, familiaren eta ordenaren defentsa ardatz zituen dialektika atzerakoi eta antisozialista zuten, baina, betiere, legezko muga batzuen barruan. Horrek alfontzotar eta karlisten estrategia kolpista eta subertsibotik aldentzen zituen; geroago, Espainiako Falangeak ordezkaturiko faxismoak hartuko zuen bere gain estrategia hori.

1933ko hauteskunde legegileek garaipena eman zieten CEDAko eta *Partido Radical*-eko eskuindarrei. Aurrekaririk gabeko mobilizazio politikoak ezaugarritu zituen hauteskundeak, mitin jendetsuekin, eta milioika kartel eta informazio-eskuorrirekin. Landa eremuetan, Tuñón de Larak dioen bezala, laster hasi zen klase herrikoien aurkako mendekua:

«[...] ugazabek irabazi zuten, jabeek, eta haiekin batera, “betiko aparatu guztiak”: kazikeak, Guardia Zibila, udal idazkariak... “Mendeku handia” hasi zen landa-eremuan, *jan ezazue Errepublika!*, soldaten jaitsiera oinarriari barre eginez, erradikalak nagusien zerbitzura jartzea Epaimahai Mistoe-tako lehendakaritzetan, nagusiek nahierara aukatzea finketara lanera joango ziren langileak eta, hori gutxi balitz bezala, udal ordezkari sozialistak kargugabetzea».

Jornalariak, bereziki hegoaldean, Aragoin eta Nafarroako Erriberan, CNTn eta UGTn sartu ziren; bitartean, nekazari lur-jabeek posizio kontserbadoreak hartu zituzten. Nekazarien sektore zabal bat, hain zuzen ere penintsula barnealdeko lur-jabe txiki eta ertainek osatua, kontserbadurismoaren eta eskuin katolikoaren hauteskunde-oinarriaren zati garrantzitsua izan zen Errepublikan, eta Primo de Riveraren diktadura babesten jarraitzen zuten. Sektore horrek 1936ko uztailleko matxinada militarra babestu zuen.

Espainiako Falangea eta Ofentsiba Nazional-Sindikalisten Batzordeak (JONS) 1934ra arte bateratuko ez baziren ere, klase ertainetan eta armadan aurkitu zuten babes nagusia. Elite burges eta aristokratikoek postura anbibalentea izan zuten

Nekazarien sektore zabal bat, hain zuzen ere penintsula barnealdeko lur-jabe txiki eta ertainek osatua, kontserbadurismoaren eta eskuin katolikoaren hauteskunde-oinarriaren zati garrantzitsua izan zen Errepublikan, eta Primo de Riveraren diktadura babesten jarraitzen zuten. Sektore horrek 1936ko uztailleko matxinada militarra babestu zuen.



talde politiko faxistekiko: eskuin monarkikoaren aldera mugitu ziren, eta, aldi berean, Falangearen eta JONSen jarrera erasokor eta eskuadrista ekonomikoki sustatu zuten. Bi taldeek Alfontso erregearen aldeko monarkikoen, industrialarien eta lur-jabeen finantziazioa jasotzen zuten. Izan ere, Bilboko bankari alfontsoatar talde batek finantzatzen zituen JONSekoak, ideia faxistak zituzten hiri horretako eliteko bi kideren bitartez. 1936ra arte ez ziren jornalari eta langileak sartu, eta orduan handitu zen afiliatuen kopurua. Hala ere, 1936ko hauteskundeetako emaitzek erakusten dute hautagaitza falangistak bere emaitzarik onenak auzo burgesetan lortu zituela beti.

Buruzagitza kartzelan eta klandestinitatean zuela, Fronte Popularraren garaipenak eta eskuindarren deskalabruak azken babesleku bihurtu zuten Falangea iraultza sozialista baten beldur zirentzat. Estatu kolpea jo eta gerra zibila piztu ondoren, landako eta hiriko klase ertainen zati handi batek faxistatze bizkorra jasan zuen, eta horrek mesede egin zien erakunde faxistei. Andaluzian, erakundearen hazkundea izugarria izan zen. Bereziki adierazgarria da Sevillako Estepa herriaren kasua: 1935ean, sei pertsona zeuden izena emanda Falangean, eta uztailearen 18aren bezperan, berriz, 101. Altxamendu militarren ondoren, afiliazio-oldeak bere horretan iraun zuen.

Erregimenaren kontrako oposizio-gileak salatu eta harrapatu zituzten, gero eta modu gordinagoan, eta ikerketak ez ziren esparru ideologikora mugatu, auzotarren orientazio sexuala, erlijiotasuna eta jokabide sexuala ere arakutzen baitziren. Urte horietan beldurrean eta isiltasunean oinarritutako zaintza eta kontrol sozialerako sare trinkoa ehundu zen.

Milizia falangistek eginkizun nabarmena izan zuten Gerra Zibilean eta gerraostean sortutako errepresioan eta sarraskian II. Errepublikaren alde egin zuen biztanleria zabal eta heterogeneoaren aurka, garaileek antiespainaren terminoan bildu zituztenen aurka, alegia. Falangeko Buruzagitza Probintziales ordezkariek bidali zituzten matxinatutako bandoak okupatutako herrietara, Erregimenari desafio egiten zioten bizilagunak zaintzeko, jazartzeko eta suntsitzeko udal-kudeatzaile berriak izendatzeko. Haiekin bat egin zuten lur-jabeek, oligarkek eta “ordenaren aldeko” herritarrek, eta agintari militarrekin elkarlanean aritzea erabaki zuten. Oposizio-gileak salatu eta harrapatu zituzten, gero eta modu gordinagoan, eta ikerketak ez ziren esparru ideologikora mugatu, auzotarren orientazio sexuala, erlijiotasuna eta jokabide sexuala ere arakutzen baitziren. Urte horietan beldurrean eta isiltasunean oinarritutako zaintza eta kontrol sozialerako sare trinkoa ehundu zen.

GOSEAREN ETA ERREPRESIOAREN URTEAK

1939tik 1951ra igaro ziren gerraosteko urteak, errazionamendurako kartillak, estraperloa eta gosea. Gizartearen atzerakadak, autarkia ekonomikoaren inposaketak eta nazioarteko ia erabateko isolamenduak ezaugarritu zuten garai hura. Blokeo ekonomiko eta diplomatikoari aurre egiteko, politika autarkikoa jarri zen martxan, eta, horren ondorioz, nekazaritza-jarduera industria-jardueraren gainetik jarri zen berriro. Nekazaritza-kontrarreforma II. Errepublikan desjabetutako lur guztiak itzultzearekin hasi zen, eta diktaduraren orekarako bereziki garrantzitsuak ziren eremuetan familien nekazaritza-jabetza sendotu zen.

Galera demografikoei erbesteratuen kopuru zabala gehitu zitzaien. Estimazio nagusien arabera 440.000 eta 470.000 pertsona artean igaro ziren mugaz bestalde, Frantziara, babes bila. Beherakada demografiko horri biztanleriaren zati handi baten miseria gehitu behar zaio, 1950eko hamarkadaren lehen urteetara arte oinarritzko produktuen eskasiak eta soldata errearen bat-bateko jaitsierak eragina izan baitzuten. Garestitasun, errazionamendu eta merkatu beltzeko urte horietan, jende bat oso azkar aberastu zen, oinarritzko elikagaiekin espekulatzeari esker. Miguel Ángel del Arco Blanco historialariak *La hambruna española* liburuan dio elikagaia tresna politiko bihurtu zela, modu desorekatuan banatua eta goitik kontrolatua baitzegoen (gizarte-

Erregimenak ezarritako miseriak eta beldurrak ez zien berdin eragin talde sozial guztiei. 1939ko otsailaren 9ko Erantzukizun Politikoen Legea erregimen frankistaren errepresio instituzionalaren tresna nagusietako bat izan zen Gerra Zibila amaitutakoan. 1936ko uztailaren 18tik aurreko garaiari begira ere aplikatu zen legea, atzeraeraginez, Errepublikaren alde, pasiboki izanda ere, agertu zen edonor zigortzeko.

klase altuagokoa izateak eta Erregimenarekiko kidesunak sustengu handiagoa bermatzen zuen). Erregimenaren politika autarkikoak larriki kolpatu zituen talde xumeenak, bereziki Extremadurako eta Andaluziako nekazariak. Horrekin batera, zentsurak debekatu egiten zuen prentsan gosea aipatzea. Gorago aipatutako historialariak defendatutako tesiaren arabera, elikadura-gabeziak biztanleria ahuldu zuen, kontrol sozialerako modu bat zen, eta soldaduskara sartzen ziren gazteen neurketetan ere islatu zen hori: “Madrilen, gerraosteko urteetan, Chamberiko gazteak Vallecasekoak baino 4,5 cm altuagoak ziren”.


Miseriak eta beldurrak ez zien berdin eragin talde sozial guztiei. 1939ko otsailaren 9ko Erantzukizun Politikoen Legea erregimen frankistaren errepresio instituzionalaren tresna nagusietako bat izan zen

Gerra Zibila amaitutakoan. 1936ko uztailaren 18tik aurreko garaiari begira ere aplikatu zen legea, atzeraeraginez, Errepublikaren alde, pasiboki izanda ere, agertu zen edonor zigortzeko. Preston eta Casanovak emandako datuen arabera, 400.000 pertsonak baino gehiagok jaso zituzten zigorrak, gaitasungabetzeak eta isunak. Milaka funtzionario, maisu, katedradun eta intelektual kaleratu edo espetxeratu zituzten. Erregimenari atxikitako elite profesionalak bete zituzten lanpostu hutsak. Paul Preston historialariarentzat, garbiketa administratibo eta profesionala bitarteko sistematikoa izan zen errepublikanismoaren arrasto oro ezabatzeko eta Estatua Kaudilloarekiko leialtasun irizpideekin berreraikitzeko.

1940tik aurrera, sindikatu bertikalak agertu zirenean –ugazabak, teknikariak eta langileak

biltzen zituzten, klase-borroka deuseztatzeko asmoz–, soldatak ordaintzeko sistema berri bat ezarri zen. 1942ko urriaren 16ko Lan Araudien Legeak hitzarmen kolektiboak hitzartzeko aukera ia erabat ezabatu zuen, eta prezioen eta soldaten arteko desoreka areagotu; horrek, era berean, oligarkiak lehen metaketa garrantzitsu bat martxan jartzea ahalbidetu zuen.

Gerra Hotzaren ustekabeko etorrerarekin, nazioarteko politikak diktadura frankistaren alde irauli ziren. Espainiak Mendebaldeko antikomunismoaren testuinguruan zuen kokapen estrategikoak erraztu egin zuen Estatu Batuetarako hurbilpena. Barne-mailan, agertoki geopolitiko berriak bat-bateko biraketa politiko eta ekonomikoa eragin zuen. Administrazioan falangismoak zuen nagusitasuna amaitu egin zen Opus Deiri



lotutako sektore teknokratak Gobernuan sartu zirenean. Era berean, klase burges merkatari, industrial eta finantzarioen boterea handitu egin zen, baita oligarkia lur-jabe zaharrarena ere. Proletariotzak, aldiz, inflazioak itota, lehen greba eta manifestazioak hasi zituen 1951tik aurrera, eta 1956-1957 artean eztanda egingo zuten protestek.

DESARROLLISMOA. NO-DOAREN ESPAINIA ETA SEISCIENTOSA

Azken urteetan gero eta ohikoagoa bihurtu da frankismoaren idealizazio ez oso disimulatua sare sozialetan. Normalean erabiltzaileak ez dira gerraoste hurbilaz ari, nahiago dute, hirurogeita hamarreko hamarkadara hurbilduz, “desarrollismo” izenarekin ezagutzen den garaia. Madrilgo metroko bagoi bateko bidaiarien edo hiriburuko erdigune-

tik paseatzen dabiltzan oinezko batzuen grabazioen zatiak biral bihurtzen dira bat-batean sare soziale-tan. Aspaldiko garai oro hobea izan dela pentsatuta, erabiltzaileek apaintasuna eta dotorezia goraipatzen dituzte janzkeran, espazioek transmititzen duten ordena eta, bereziki, irudietako protagonisten arraza-uniformetasuna. Grabazio horiek diktadura frankistaren propaganda-baliabide garrantzitsuetako batetik datoz: NO-DOa. Asteroko dokumental horiek estatu osoko aretoetako emanaldi zinematografikoen atarikoak izan ziren 1943tik 1981era. Erreportajeek, gai askotakoak, herritarrek doktrinatzeko funtzioa zuten, eta Espainia zoriontsu eta axolagabe baten irudia eskaintzekoa, hirien periferiako txabola-herrixken miseria eta landa-eremuko analfabetismoa ezkutatu nahi baitzen, nahiz eta analfabetismoa gutxi gorabehera %42,5ekoa izan.



Aurrerapenaren eta modernitatearen irudikapen idiliko horiek indartu egin ziren hirurogeita hamarreko hamarkadan Manuel Fraga Iribarneren Informazio eta Turismo Ministerioaren kanpainekin. “Spain is different” eta antzeko leloak erabilia, irudi erakargarri bat proiektatu nahi zuten, atzerapena eta desberdintasun sozialak ezkutatzeko.

1959ko Egonkortze Planaren ondoren bultzatutako hazkunde ekonomikoak eraldaketa sozial sakona eragin zuen. Industrializazioak eta hirugarren sektorearen hedapenak lagundu zuten langile kualifikatuz eta administrazio-enplegatuz osatutako klase ertain berri bat bat-batean sortzen. Talde berri horrek aktiboki parte hartu zuen masa-kontsumo hasiberrian. Horren sinbolo da ezagun egin zen Seat 600a, ongizatearen eta estatusaren ikur bihurtu zena. Ekonomia bizkortzea, turismoaren hasiera eta irekiera erlatiboa gizarte-gatazken areagotze batez lagunduta etorri ziren. Zineman proiektatutako estampa pintoreskoek ez zuten Erregimenaren josturak ezkutatzetik lortzen. Industriadako eskularen eskaerak nekazarien exodoa areagotu zuen, eta “txabolismoaren” fenomenoak sortu. Berrogeiko hamarkadan gosearekin espekulatu bazen, berrogeita hamarrekoan gauza bera egin zen etxebizitzarekin. Espekulazioak, Estatuaren finantziazioak lagunduta, aberastasun azkarrak sortzea ekarri zuen. Hirien hazkunde neurrigabearen aurrean, landa-eremua ahulduz joan zen. Erregimenak “urtegien politika” delakoarekin erantzun zuen, propaganda desarrollistaren eta autarkia berantiarren funtsezko osagaia izan zena.

ERREGIMENAREN LEGITIMAZIOA

1820an Riegoren jazarraldiak “Gora Konstituzioa!” oihukatuz hasitako arkuak 1936an itxi zen behin betiko, kasu horretan ere jazarraldi militar batekin, eta orokorrean garaipena lortu ez bazen ere, estatu kolpeari bide emango zion gobernu errepublikarra boteretik kentzeko balio izan zuen.

Erregimen frankistak, beraz, Espainiako erreakzionarismoak Berrezarkuntzako sistema politikoaren krisian izandako ibilbidean dauka jatorria, eta Primo de Riveraren diktadurak ekarri zuen esperientzia autoritarioaren hondoratzean. Tuselli jarraikiz, aipatzekoa da Gerra Zibilak aurrekaririk gabeko aldaketa erabatekoa ekarri zuela, ez bakarrik diktaduraren erregimen politiko baten inposaketagatik, baizik eta bat-bateko hausturagatik eta aurre-aurreko historia isilarazi eta desagerrarazteko nahiagatik. Erregimen berriak, tradizionalismoaren eta katolizismoaren printzipioetan oinarrituta, babesa jaso zuen erreforma errepublikarrek iraindutako gizarteko kolektibo askotarikoak osaturiko sare zabal eta heterogeneoarengandik, langile eta jurnalarien gatazka iraultzailearen aurrean erradikalizatuak izandakoak. Elite garaileek, printzipio erregenerazionisten lekukoa hartuta, aberriaren garbitzaile papera hartu zuten. Casanovak adierazten duenez, Erregimenak ez zituen soilik bere etsai politikoak suntsitu, baizik eta ordena moral bat eraiki zuen memoria selektiboan, eguneroko beldurrean eta erredentzio nazionalaren promesean oinarrituta. Militarrak, lur-jabeak, enpresariak eta atxikitutako klase ertainak sarituak izan ziren beren leialtasunagatik eta errepresioan laguntzeagatik. Goseak eta errepresioak ahuldutako sektore herrikoia, berriz, protesta politikoko edozein manifestazio artikulatu egiteko ezinduta geratu zen. ●

1959ko Egonkortze Planaren ondoren bultzatutako hazkunde ekonomikoak eraldaketa sozial sakona eragin zuen. Industrializazioak eta hirugarren sektorearen hedapenak lagundu zuten langile kualifikatuz eta administrazio-enplegatuz osatutako klase ertain berri bat bat-batean sortzen. Talde berri horrek aktiboki parte hartu zuen masa-kontsumo hasiberrian. Horren sinbolo da ezagun egin zen Seat 600a, ongizatearen eta estatusaren ikur bihurtu zena.



GERRA- OSTEAREN ITZAL LUZEA:

FRANKISMOAREN BIZIRAUPENA
BIGARREN MUNDU GERRAREN
ONDOREN

Testua — **Lisabe Velasco**

Mundu gerraren irteerara bidean, argi zegoen erregimen frankistaren helburu nagusia ez zela garaipena, teknikoki ez baitzuen gatazkan parte hartu. Frankismoaren jomuga biziraupena zen.

1944ko maiatza zen Winston Churchillek Espainia frankistaren neutralitatea gorai-patu zuenean Komunen Ganberan emandako hitzaldi batean. Lehen ministro britaniarrak interbentzio ezaren politika berretsi zuen, eta “Franco doan iraintzea akatsa zela” ere adierazi zuen. 1945 hurbiltzen zen heinean, geroz eta argiago zegoen Bigarren Mundu Gerraren amaieran nor aterako zen garaile, eta Francok, gerran izandako jarrera aldakorrarekin jarraituz, Espainiako Estatuaren neutraltasuna berretsi zuen, aurreko hiru urteetan izandako jarrera ez beligerantea baztertuz. Mundu gerraren irteerara bidean, argi zegoen erregimen frankistaren helburu nagusia ez zela garaipena, teknikoki ez baitzuen gatazkan parte hartu. Frankismoaren jomuga biziraupena zen. Eta, historiak emandako perspektibatik, esan dezakegu helburu politiko hura lortu egin zuela.

Salbuespenaren diskurtsoetan erori gabe, aitortu behar da beste erregimen faxista garaikideek izan ez zuten bereizgarri bat izan zuela frankismoak: aparteko iraupena. Lau hamarkada luzez, frankismoak bere itzalpean izan zuen Espainiako Estatua, eta urteetan zehar biztanleriak jasandako errepresioa biziraupen horren sostengu izan zen arren, ez du irudi osoa bere kabuz azaltzen. Fenomeno hori azaltzeko arrazoiak askotarikoak dira, eta sakon arakatu dira azken hamarkadetakako produkzio historiografikoan: Erregimenaren “euskarri sozialak” edo estatu frankistak sustatutako “kontsensuaren politikak” dira gertakari poliedriko honen adibide. Frankismoaren iraupena ulertzeko, funtsezkoa izango da, halaber, Bigarren Mundu Gerraren ondoren sortutako nazioarteko paradigma berria azaltzea, hortxe baitago frankismoaren kontsolidazioaren eta normalizazioaren gakoa, mundu gerraren osteko lehen urteetako isolamendutik Gerra Hotzaren eszenatokiko integraziorako trantsizioa ahalbideratu baitzuen.

FRANKISMOA GERRATE INTERNAZIONALEAN: NEUTRALITATEA ZALANTZAN

Bigarren Mundu Gerrak iraun zuen urteetan, Espainiako Estatua ez zen gerran sartu. Ofizialki behintzat, ez. Gatazkaren aurrean, estatu frankistaren jarrera nazioarteko neutralitate ofizialaren eta egoera ez beligerantearen artean mugitu zen. Horrek, dena dela, ez du inolaz ere esan nahi Erregimenaren jarrera neutrala izan zenik gatazkan osoan: 1939 eta 1945 tartean, Francoren nazioarteko politikak pragmatismoa eta oportunismoa izan zituen ezaugarri, Ardatzari hurbilduz arrazoi ideologikoengatik, baina baita Erregimenari ekar diezazkiokeen onurengatik ere, eta, Aliatuen garaipena saihetsezin ikusi zuenean, haiekin bat egiten saiatuz.

Estatu frankistaren partaidetza-eza azaltzen duten arrazoien artean, postura hori gehien baldintzatu zuena, agian, Estatuaren beraren egoera ekonomiko latza izan zen. Autarkiaren urteetan –Gerra Zibila amaitzetik 1959eko Egonkortasun Planera arte–, frankismoak eraiki nahi zuen estatu berri horren ekonomia kontrolatzeko zenbait neurri jarri zituen abian, bereziki nekazaritzako eta industriako produkzioa kudeatzera bideratuak. Gariaren Zerbitzu Nazionalaren eta antzeko beste erakunde batzuen bitartez, produkzioaren kontrol zorrotza ezartzen zen. Erakunde frankistek ekoizpena bildu eta haren banaketa erabakitzen zuten, nahikoa ez zen errazionamendu baten bidez. Produkzioaren zati bat, gainera, Alemaniara bidaltzen zen, merkatuetara ailegatzeko aukera izan baino lehen, Gerra Zibilean emandako laguntzaren truke frankismoak erregimen naziarekin zituen zorrak ordaintzeko.

Autarkiak gogor jo zuen ekonomia estatu mailan, baina bereziki biztanleriaren egunerokoan sentitu zen eta, are gehiago, bai hirietako langileengan bai espoliatua izaten ari zen landa-eremuko langileriarengan. 1940ko hamarkadaren izendatzaile

komuna miseria izan zen: goseari langabezia gehitu zitzaizkion, baita errepresioa ere, momentu hartan bere espresio gogorrean agertzen baitzen. Errazionamendu kartillek ematen ez zutena konpentsatzeko, askok merkatu beltzera jo behar izaten zuten, non hilabeteko soldataren erdia erabili behar zuten lau pertsonako familia baten gosaria ordaintzeko. Ogia, olioia edo azukrea luxuzko produktu bilakatu ziren merkatu irregular horretan.

Merkatu beltzaren prezio puztuei aurre egin ezin izatekotan, asko ziren “ebasketa famelikoak” deiturikoetara edo Erregimenaren beraren karitate erakundeetara jo behar izaten zutenak, hala nola *Auxilio Social*-era edo Falangearen Emakume Atalera. Erakunde horien laguntza, jakina, Erregimenaren idealei atxikitzearen baldintzapean zegoen, batez ere Emakume Atalak ematen zuena.

1940ko hamarkadaren izendatzaile komuna miseria izan zen





Ogia, olioa edo azukrea luxuzko produktu bilakatu ziren merkatu beltzean

Eta batzuek gosetea sufritzen zuten bitartean, beste batzuek negozioa egin zuten miseriaren kontura: autarkiaren urteetan estraperloak irabazi handiak ekarri zizkion gutxiengo bati. Gehiengoaren gosearekin jolastuz, kupula frankistetan mugitzen ziren hainbat enpresari handik etekin ekonomiko galanta atera zuten 1940ko hamarkadan. Jakinda autoritate frankistek beste aldera begiratuko zutela, inportatutako produktuak salerosten zituzten, baina baita errazionamendutik ihes egiten zuen ekoizpena ere.

Egoera ekonomiko larria, gosete orokorra eta Erregimeneko “familien” arteko borrokak gorabehera, Estatu Berriaren egonkortasuna oraindik ere erdi ezarrita zegoela, Espainiak ez zuen berehala baztertu Mundu Gerran esku hartzeko aukera. Hitlerrek eta Francok 1940ean Hendaian izandako elkarrizketa Ardatz faxistaren negoziazioen testigantza da. Urte hartan bertan, ekainean, estatu frankistak bere neutraltasun ofiziala alde batera utzi zuen eta ez beligerante deklaratu zuen bere burua, alemaniarrek Frantzian egiten ari ziren aurrerapen militar azkarrek animatuta. Ez beligeran-

tzia estatusa beligerantzia ofizialaren aurreko pauso bat besterik ez zen, eta postura horren bitartez balizko neutraltasunarekin apurtzen zuen Espainiako Estatuak, gerran nolabaiteko partaidetza izateko, Mussolinik 1939an deklaraturako aurrebeligerantziaren antzera.

Erabaki horretan, Alemania naziaren aurrerape- nez gain, Francoren gurari inperialistek ere eragin zuten, baita Serrano Suñerren eraginak ere (Serrano Suñer Kanpo Arazoetako ministroa zen, germanofiloa, eta diktadorearen koinatua). Serrano Suñer bera izan zen gosetearen punturik larrienean, goseak zuzenean edo zeharka eragindako heriotzak kotarik altuenetan zeudenean, Estatu Batuetako Gurutze Gorriak esne hautsezko kaxak bidaltzeko egindako saiakerari uko egin ziona. Serrano Suñer Kanpo Arazoetako ministroa nazien aldekoa zen, Espainiako Estatua gerran sartzea nahi zuen, eta AEBko Gurutze Gorriaren laguntza jasotzeak sar- rera hori oztopatu zezakeen. 1942an, Francisco Gómez-Jordanak Serrano Suñer ordezkatu zuen ministro postuan; ministro berria anglofiloa eta interbentzio ezaren aldekoa zen.

Azkenean, estatu frankistaren behar militarrek eta, bereziki, ekonomikoak gehiegizkoak izango zi- ren gerran ofizialki parte hartzeko, Ardatzeko po- tentzien laguntza izanda ere. Frankismoaren barne- ko “familien” artean ere bazeuden interbentzioaren aurka zeudenak, hala nola, Eliza katolikoa, zeinak mesfidantzaz ikusten baitzuen Falangeak esparru politiko, sozializatzaile eta ideologikoen kontrola hartzea. Aurka zegoen, halaber, Juan March, enpre- sari famatua eta 1936ko uztailaren 18ko estatu kol- pea finantzatu zuenetako bat, Erresuma Batuak ba- bestutako eroskeria batean aritu zena goi agintari militar frankistak konbentzitzeko gerran ofizialki sartzea saihestu behar zela.

Hala ere, nahiz eta estatu frankistak Bigarren Mundu Gerran izan zuen parte hartzea ez zen inoiz ofiziala izan, frankismoaren neutraltasuna gezur- tatu egiten da Ardatzeko potentziekin izan zuen harremanari arreta jartzen zaionean, bai politika- ri dagokionez, bai merkataritzari dagokionez; izan ere, Espainiako Estatua wolframio (edo tungsteno) hornitzaile nagusietako bat bihurtu zen Alemania- rentzat, arma-industriarako mineral estrategiko hori erregimen naziari saldu baitzion. Erregimen-aren partzialtasun nabarmenaren lekuko da, halaber, sobietar frontean Dibisio Urdinarekin borrokatze- ra boluntarioak (eta “boluntario” behartuak) bidal-

tzea, Espainiako Estatua gerratean *de facto* belige- rante bihurtuz.

Gerraren amaierako neutraltasun ofizialaren aldeko biraketa ez zen aldaketa ideologiko bat izan, Francok Ardatzaren ezinbesteko porrotaren aurrean kalkulaturako biziraupen estrategia bat baizik. Aldaketa hori bultzatu zuen faktore nagu- sia Aliatuen presio ekonomikoa izan zen, bereziki wolframioaren merkataritzari zegokionez. Alia- tuek petrolioaren enbargatzearekin mehatxatu zuten Espainia, Estatu Batuen aldetik, bai eta balizko blokeo batekin ere, herritarrek etsi-etsian behar zituzten oinarritzko produktuen, hala nola garia- ren, bidalketan.

1944ko maiatzean, Churchillek bere hitzaldia ematen zuen bitartean, Francok akordio bat sinatu zuen Aliatuekin, besteak beste wolframioaren es- portazioak Alemaniara nabarmen murriztea, so- bietar fronteko Dibisio Urdinetik geratzen zena erretiratzea, Alemaniako agenteak kanporatzea, Bretton Woodseko Akordioak aplikatzea eta Es- painiako portuetan errefuxiatutako ontzi italiarrak Aliatuei entregatzea onartuz. Erregimenak, gaine- ra, antikomunismoa ustiatuz “irudi garbiketa” bat egiteko aprobetxatu zuen, eta horrek aparteko ga- rrantzia hartu zuen Gerra Hotza hastearekin ba- tera. Bastioi antikomunista bihurtu zen Espainia

Ardatzaren porrotak eta gerra garaian taularen kontrako aldean egon zirenengana hurbiltzeko asmo berriek ez zuten inolaz ere Espainia ideia nazional-katolikoetatik erabat urruntzea ekarri, nahiz eta, apurka-apurka, Erregimenaren ezaugarri faxistenak indarra galtzen joan ziren, nazioarteko borrokaren ondoren sortutako mundura hobeto egokituko zen izaera berri baten mesedetan

eta, hala, Europan komunismoari eusteko aliatu potentzial gisa agertu zen Franco, nahiz eta, aldi berean, kriminal naziei harrera egiten jarraitu eta Espainiara eta Latinoamerikara ihes egitea erraztu. Aliatuenganako bira hori maniobra pragmatiko eta zinikoa izan zen, eta Francori aukera eman zion gerraren ondoren Aliatuen esku-hartze bat saihesteko, haren erregimen isolazionista eta autarkikoa salbatzeko eta Estatu Batuekiko etorkizuneko harremanerako oinarriak ezartzeko (1953ko Itunetan aurreratuko zen oinarri hori).

Ardatzaren porrotak eta gerra garaian taularen kontrako aldean egon zirenengana hurbiltzeko asmo berriek ez zuten inolaz ere Espainia ideia nazional-katolikoetatik erabat urruntzea ekarri, nahiz eta, apurka-apurka, Erregimenaren ezaugarri faxistenak indarra galtzen joan ziren, nazioarteko borrokaren ondoren sortutako mundura hobeto egokituko zen izaera berri baten mesedetan. Baina, nahiz eta epe luzera erregimen frankistaren biziraupena sendotu (bereziki Estatu Batuekiko harremanaren bidez), nazioarteko isolamenduak markatu zituen gerraosteko lehen urteak.

BIGARREN MUNDU GERRAREN GERRAOSTE LUZEA, ISOLAMENDUA ETA NORMALIZAZIOA

1936eko udan, Gerra Zibilak eztanda egin eta tropa frankistek errepresio makineria martxan jartzen zuten bitartean, Erresuma Batuko, Frantziako, Italiako eta Alemaniako ordezkariak Londresen bildu ziren Ez Interbentzioko Hitzarmena sinatzeko. Hitzarmenaren helburu nagusia Gerra Zibilaren internazionalizazioa etetea zen, Europan demokrazia liberalen eta diktadura faxisten arteko tentsioa areagotzen ari zen momentu batean. Alabaina, hurrengo hiru urteetan Italiak eta Alemaniak hitzartutakoa hautsi zuten, eta alderdi faxistaren alde egin. Hitzarmena sinatu zuten gainerako herrialdeek eskurik ez hartzeko eman zuten hitza gorde zuten arren, haien gelditasunak ere lagundu zuen matxinatuen garaipenean.

Hori ez zen izan faxismoaren aurkako europar borroka gidatu omen zuten potentzien esku-hartze ezak erregimen frankistari bere boterea sendotzeko behar zuen laguntza ekarri zion aldi bakarra.

Nazioarteko esparrutik, frankismoaren aurkako keinu gehienak diplomatikoak izan ziren kasurik onenean, eta sinbolikoak okerrenean. Frankismoaren aurkako erresistentziatik geratzen zenak, gerrilla edo militantzia klandestino moduan, Aliatuen esku-hartze militarra edo, gutxienez, gobernu demokratiko baterako trantsizioa espero zuen bitartean, potentzia aliatuek Espainia frankista Nazio Batuen Erakundetik kanpo utzi zuten, besteak beste; halaxe hitzartu zuten 1945eko udaberrian, San Frantziskon egin zen bileran.

Potsdameko Batzarrean, Stalinek Espainiarekin harremanak hautsi eta Francoren aurkako indar demokratikoei babesa emateko egindako proposamenaren aurrean, Churchill eta Truman Francoren Gobernuaren aurkako adierazpenak sinatzera mugatu ziren, britaniarrek eta estatubatuarrek Espainian ez interbenitzeko jarrerari eutsita. Inpartzialtasunaren eta indiferentziaren artean, Frantzia ere interbentzio ezera batu zen. Sobietar Batasuna, hasiera batean frankismoaren aurkako saiakera hura egin ondoren, potentzia Aliatuak Europako Mendebaldean egiten ari zirenari ezikusiarena egitearekin konformatu zen, betiere Ekialdeko Europan antzera jardun ahal bazuen.

Nazioarteko isolamendu diplomatikoarekin batera, zehapenak ere ezarri ziren, bereziki 1945etik 1953rako tartean, eta neurri askok izaera erreala baino sinbolikoa izan arren, ondorioak ez ziren soilik erregimen frankistaren kanpo- eta barne-politikan sentitu; berez hondoratuta zegoen ekonomian ere izan zuen eragina, eta, beraz, gerrak, errepresioak eta miseriak kolpatutako biztanleriak ere hauteman zituen. Autarkia ekonomiarako oztopo izan zen arren, neurri batean, Espainiako Estatuak jasan zuen blokeo ekonomikoak hura erraztu zuen. Lehen urteetako isolamendu diplomatiko eta ekonomikoen ondorioz, estatu frankista Marshall Planetik kanpo gelditu zen 1947an, baita Ekonomia Lankidetzarako Europako Erakundetik ere urtebete beranduago. Bi erakunde horiek posible egin zuten AEBk Europari emandako laguntza instituzionalizatzea. 1949ean, NATOtik kanpo gelditu zen, baita Europako Kontseilutik ere, eta 1951. urtean ez zen sartu Ikatzaren eta Altzairuaren Europako Erkidegoan. Horrela, blokeoaren ondorioz, Espainiak ezin izan zuen parte hartu Bigarren Mundu Gerraren amaieran Nazio Batuen (FMI) eta GATTen (nazioarteko merkataritzako lankidetz) inguruan diseinatzen joan zen nazioarteko ordena ekonomiko berriaren sorreran.

Nahiz eta Espainiako Estatua XX. mendearen erdialdean sortutako nazioarteko erakundeetatik kanpo geratu zen (hala nola Mendebaldeko Europako Batasuna 1956ean, Europako Ekonomia Erkidegoa eta Euroatom 1957an, edo Europako Merkataritza Libreko Elkartea 1960ean), garai hartan

Erresuma Batuak eta Frantziak Espainian eskurik ez hartzeko eman zuten hitza gorde zuten arren, haien gelditasunak ere lagundu zuen matxinatuen garaipenean

bizitako isolamendua ezin da aurreko hamarkadakoarekin alderatu eta, 1953etik aurrera, berriz abiarazi zen Espainia frankista nazioarteko harremanetan integratzeko prozesua. Horren erakusle izango dira Espainiako Estatuaren eta Egoitza Santuaren arteko konkordatua eta, batez ere, 1953ko Madrilgo Itunak, AEBko Gobernuarekin sinatu zirenak.

“INTERNAZIONAL KOMUNISTAREN MEHATXUA”

1940ko hamarkadan, Espainiako Estatuko biztanleria autarkiaren ondorio larrienak sufritzen ari zen bitartean, eta Francoren eta Ardatzaren arteko harreman estua agerian uzten zuten Berlinen aurkitutako dokumentuen argitalpenak isolamendua indartzen zuen bitartean, Gobernu frankista joera politiko bat eraikitzen ari zen, Francori askoz baliagarriagoa eta errentagarriagoa izango zitzaiona Bigarren Mundu Gerraren amaieratik sortu zen botereen oreka berrian. Jarrera hori antikomunismoa zen. Estrategia politiko hori hasieratik egon zen frankismoaren muinean, baina, 1945etik aurrera, nazioarteko erlazioen esparruan askoz erabilgarriagoa izan zitzaion. Frankismoaren konbikzio antikomunista ideologikoa zen, baina baita estrategikoa ere.

Aliatuen arteko barne tentsioak gerra amaitu baino lehen hasi ziren handitzen, eta are gehiago teinkatu zen egoera gerraosteko Europaren politiken gaineko kontrolaren, jada hasita zegoen armamentu norgehiagokaren eta sobietar espantsionismoaren beldurraren eraginez. Eta 1946. eta 1947. urteetan agertuz joan ziren mesfidantzei 1947ko Truman Doktrinak gogor markatutako AEBko politikan joera berri bat agertu izana gehitu zitzaien, kutsu antikomunista eta interbentzionista argia zuena. Hasierako eztanda handirik gabe, ia une historikoaren inertziengatik, hasi zen Gerra Hotza.

Testuinguru berri horretan, Francok trebetasunez maniobratu zuen: Kanpo Arazoetako ministro berria izendatu zuen eta “Espainiarren Forua”, herritarren eskubide eta askatasunen gutun gisa nekez defini daitekeena, arautu zuen, baita Erreferendumaren Legea ere. Helburua, nolabait, frankismoaren barnean elkarrekin bizi ziren osagarri faxistenak (hots, falangismoa) ezkutatu, kamuflatu

Nazioarteko esparrutik, frankismoaren aurkako keinu gehienak diplomatikoak izan ziren kasurik onenean, eta sinbolikoak okerrenean

edo baztertzea zen. Erregimenaren izaera faxista hutsa erabat desagertzen ez bazen ere, frankismoaren koalizioaren barruan zuen boterea arindu egiten zen. Horrela, beste ezaugarri batzuek distira handiagoa izan zezaketen testuinguru berri batean, non komunismoaren gaitzespenak edo kapitalismoaren babesak ekarpen handiagoa egingo liokeen frankismoaren biziraupenari.

Une horretan, taula gaineko piezak mugitzen hasi ziren, Espainia frankistaren aldeko nazioarteko politiketan aldaketa errazteko. Bereziki garantzitsua izan zen AEBko indar armatuen zerregina, herrialde hartako presidenteak ustezko arrisku sobietarrari aurre egiteko antolatu nahi zuten defentsa-lerroan diktadura frankista sartzeari ahalbidetzeko.

Mundu Gerraren ondorengo nazioarteko harremanen behin betiko haustura-puntua Berlinen banaketak eta 1949an SESBek bonba atomikoa garatzeak markatu zuten, eta horiei Txinako komunistek Chiang Kai-shek garaitu izana gehitu zitzaion. Tentsioak gora egin zuen hurrengo urtean Koreako Gerra hasi zenean, Gerra Hotzeko proxy gatazka ugarietako bat, eta horrek erabateko aldaketa eragin zuen Mendebaldeko potentziek Espainiari buruz zuten pertzepzioan. Egoera berri horretan aldatu zuen Truman presidenteak be-

re politika, eta prozesu bat hasi zen, Eisenhower presidentearen agindupean, 1953an Espainiaren eta Estatu Batuen arteko itun militarrek sinatzean amaitu zena. Urte horretan bertan konkordatu sinatu zen Vatikanoarekin eta, 1955ean, Espainia NBEn onartua izan zen; horrekin, nazioarteko isolamenduaren ilunabarrera iritsi zen estatu franquista.

Francoren erregimenarentzat, lorpen horiek garaipen pertsonalak izan ziren. 1945ean biztanleriari isolamendua jasatea besterik gomendatu ez zitzaion bitartean, orain komunismoaren aurkako borroka globalean aitzindari gisa aurkezten zuen Francok bere burua, eta bere irudi politikoa erabat errebindikatuta sentitzen zuen. Izan ere, 1939ko martxoaren 27an batu zen Franco Antikomintern Itunera, “Internazional Komunistaren mehatxua- ren” aurka borrokatzeko.

Espainiako Gerra Zibilak eragin luzea izan zuen Erregimenaren kanpo politikan, zeinaren amaierak alderdi frankistari mesede egin baitzion, neurri batean Erresuma Batuak eta beste potentzia batzuek 1936an ezarritako interbentzio ezaren politikaren ondorioz. Gatazkaren ondoren, Espainiak Bigarren Mundu Gerran parte hartu nahi izan zuen, Ardatzarekin zuen kidesasun ideologikoak eraginda, baina baita oportunismo geopolitiko argiak bultzatuta ere. Hala ere, Ardatzarekiko aliantza estu hori 1944tik aurrera pitzatu egin zen, mundu gatazka beste aldera lerratzen hasi zenean. Orduan, Erregimenak beste bira pragmatiko bat eman zuen, urruntze hori kapitalizatu nahian, Aliatuen mesedea lortzeko. Estrategia hori ez zen guztiz arrakastatsua izan, eta Espainiako Estatuak zehapen diplomatikoekin eta nazioarteko erakundeetatik kanpo uztearekin zigortu zuten. Aitzitik, frankismoaren biziraupena bera ez zen inoiz benetako arriskuan egon, Erresuma Batuak eta Estatu Batuek

Francoren erregimenarentzat, NBEn sartzeari eta Vatikanoarekin eta AEBekin itunak sinatzea garaipen pertsonalak izan ziren. 1945ean biztanleriari isolamendua jasatea besterik gomendatu ez zitzaion bitartean, orain komunismoaren aurkako borroka globalean aitzindari gisa aurkezten zuen Francok bere burua, eta bere irudi politikoa erabat errebindikatuta sentitzen zuen.

Interbentzio ezaren politikak frankismoaren biziraupena ahalbidetu zuen, Espainiako Estatuaren mugen barruan sendotzeko adina, makien erresistentzia armatuaren azken txingarrak itzaliz 1950eko hamarkadan

bultzatutako eta Frantziak konbentzimendu gutxiagorekin babestutako interbentzio ezaren forma berri bati esker, SESBek abstentzio estrategikoaren aldeko jarrera hartzen zuen bitartean. Gerra Hotzaren hasierak Espainia frankista Mendebaldeko Blokean pixkanaka integratzea ahalbidetu zuen. Europako demokraziek mesfidantzak azaleratu zituzten arren, integrazio hori Estatu Batuekin egingin-dako defentsa-itun antisobietarraren bidez gauzatu zen azkenean, eta, betoa jarri eta hamarkada batera, estatu frankista NBEn sartu zen.

Interbentzio ezaren politikak frankismoaren biziraupena ahalbidetu zuen, Espainiako Estatuaren mugen barruan sendotzeko adina, makien erresistentzia armatuaren azken txingarrak itzaliz 1950eko hamarkadan. Baina, aldi berean, nazioarteko panoraman animoak baretzea ere ahalbidetu zuen, eta, mundu mailako paradigma berri baten etorrerarekin, erregimen frankistaren posizioa beste behin ere aldatu egin zen. Horrela azaldu zen Gerra Zibilaren ondoriorik iraunkorrena: Franco-ren erregimenaren iraupena eta sendotzea, bere garaipenetik ia berrogei urtera.

ONGI ETORRI, MISTER MARSHALL

Espainiako Estatuaren eta Estatu Batuen arteko aldebiko harremana, diktadura frankistan, Espainiako kanpo politikaren ardatz nagusi bihurtu zen 1953ko akordioetatik aurrera, eta horrela mantendu zen Erregimena amaitu arte. Harreman horren funtsa bi herrialdeek zituzten interesak izan ziren. Alde batetik, Estatu Batuek Iberiar penintsulan base militarrak ezartzeko zuten interes estrategikoa aurkitzen dugu. Nahi hori agintari frankistek onartu egin zuten, Mendebaldeko lehen potentziaren babesak ematen zien nazioarteko zilegitasun eta


errespetagarritasunaren truke; izan ere, babes hori bereziki garrantzitsua zen mundua Gerra Hotzaren eskema bipolarrean bete-betean sartu zenean.

Elkarte horrek, funtsean bi aldeentzat onuragarria izan arren, Espainiako Estatuaren eta AEBren arteko harreman erabat desorekatua izan zuen atze-oihal bezala, lehenengoa bigarrenaren helburu politiko, ekonomiko eta militarren mende zegoelako. Estatu Batuek ez zuten Espainia faxismotik askatzeko inongo prozesutan parte hartu, Sobietar Batasunak Gerra Zibilean parte hartzeko aukera mahai gainean jarri zuenean aukera hura babestu ez zuen bezala. Bigarren Mundu Gerran berandu sartu ondoren faxismoaren aurkako borrokan bere burua lider gisa aurkeztu arren, gerraosteko aldian ez zuen laguntza ekonomikoa eskuratzea erraztu. Hala ere, iparramerikarren eta sobietarren arteko gatazka agerikoa izaten hasi zenean, Gobernu frankistak bere burua ur gainean mantentzeko aukera ikusi zuen, AEB bere kanpo politikaren erdigunean jarritz: 1953an Vatikanoarekin eta Etxe Zuriarekin egindako akordioak nazioarteko isolamenduaren lehen pitzadura izan ziren, eta gogoan izan behar dugu isolamendu hori izan zela diktaduraren gainean eroritako benetako zigor bakarra. AEBk, bere

aldetik, jarrera pragmatikoa hartu zuen, base militarrek jartzean adierazitako interes estrategikoei lehentasuna emanez, demokrazia liberal bati aurre-suposatu beharreko ardura ideologikoen gainetik.

1953ko itunak, negoziazio prozesu konplexu batean sortuak, hiru hitzarmen publiko izan ziren: defentsako bat, elkarrekiko defentsarako laguntzako bat eta laguntza ekonomikoko bat. Itunek Washingtonentzat oso onuragarriak ziren eranskin sekretu batzuk ere jasotzen zituzten, Estatu Batuei ia erabateko askatasuna ematen zietenak base militarrek erabiltzeko “eraso komunista nabarmen” baten kasuan, bai eta estatutu juridiko pribilegiatu bat euren langileentzat eta salbuespen fiskalak ere, besteak beste. Horren truke, Espainiak Europako beste herrialde batzuek Marshall Planaren bidez lortutakoa baino askoz ere laguntza ekonomiko eta militar txikiagoa jasoko zuen. Laguntza hori, funtsean, base militarren eraginkortasuna bermatzera bideratuta zegoen, eta ez herrialdearen garapen integralera.

Hurrengo bi hamarkadetan, erregimen frankista alferrik saiatu zen harreman asimetriko hori berriaz negoziatzen, elkarren defentsarako bermea, laguntza militar modernoa eta Europan integratzeko



***Autarkiaren eta nazioarteko
isolamenduaren amaierari
erregimen baten eraldaketak
jarraitu zion, zeinak, bere
izaera diktatorialari uko
egin gabe, nazioarteko
egoera berrian kokatzeko
maniobrak egin baitzituen***



babesa bilatuz. Hala ere, maniobratzeko tarte txikia zuenez eta Washingtonek instalazio militarretarako etengabeko sarbidea mantentzeko erabateko lehentasuna zuenez, aurrerapenak oso txikiak izan ziren. Estatu Batuetako presentzia militarrek, 1966an Palomaresen gertatutakoarekin eta antzeko gertakariekin, gero eta antiamerikanismo handiagoa sortu zuen Espainiako Estatuko biztanleriaren hainbat sektoretan, Estatu Batuak diktaduraren babesarekin lotzen baitzuten.

Harreman horren ondorioek, gainera, gizarte-eta kultura-eremuan ere isla izan zuten, garrantzi handiko faktorea izan baitzen Gerra Hotzaren propaganda-logikaren barruan. Esate baterako, Espainiako Estatuko eliteak AEBn trebatzera bideratutako hezkuntza-trukeko programak abian jarri ziren, edo *american way of life* deritzona irratia zen eta beste komunikabide batzuen bitartez hedatzen ahalegindu ziren, horretarako AEBko irratiei espazioak eta frekuentziak lagata; gainera, mobilizazio-agente gisa jarduten zuten, irrati klandestinoen emisioak oztopatzeko.

Mister Marshallen etorrerak, Europa mendebaldeko beste herrialde batzuekin alderatuta atzeratu bazen ere, ondorioak izan zituen, halaber, Espainia frankistan. Harreman diplomatiko, ekonomiko eta militar hori asimetrikoa izan zen beti, eta, batez ere, komenientziazkoa. Alde batetik, Francoren erregimena sendotu zuen, eta Estatu Batuetako Gobernuari subiranotasuna lagatzea ekarri zuen,

diktadura Mendebaldeko Blokearekin lerrokatuz, Gerra Hotzaren mundu bipolarrean. Aliantzak elementu modernizatzaileak ere sartu zituen, bereziki diktaduraren ekonomia geldian, baina biztanleriak “lagun amerikarra” ez zuen demokraziaren bermatzaile gisa ikusi, diktaduraren euskarri gisa baizik; ondorioz, antiamerikanismoa handitu egin zen frankismo berantiarreko mugimendu sozialetan.

Nolanahi ere, AEBko Gobernuak diktadurari laguntzeko balio izan bazuen ere, ez zion eutsi erori zenean. Frankismoaren aldi baterako izaeraz jabetuta, harreman hori “etorkizunerako inbertsio” gisa ikusi zuten, frankismo osteko liderrekin harremanak lantzeko, trantsizio politiko saihetsezinaren ondoren Espainiako Estatuan zituzten interes estrategikoen jarraipena ziurtatzeko azken helburuarekin.

Autarkiaren eta nazioarteko isolamenduaren amaierari erregimen baten eraldaketak jarraitu zion, zeinak, bere izaera diktatorialari uko egin gabe, nazioarteko egoera berrian kokatzeko maniobrak egin baitzituen. Franco, Gerra Zibilean boterera bultzatu zuen fakzio falangista alde batera utzita, hurrengo hamarkadetan kapitalismoa besarkatzen zuten sektore teknokratetara hurbildu zen, etorkizun hurbil eta urrunean Erregimenaren biziraupena bermatze aldera. Une horren ondoren diktadurak iraun zituen hamarkadak eta 1975a eta gero diktadurak utzi zuen herentzia estrategia horren eraginkortasunaren lekuko dira. ●

FRANKISMOAREN KOORDENATU OROKORRAK

Testua — **Jon Larrabide**

Kapitalista handiak, jaun feudala balitz bezala, lurraldearen eta jendearen gainean agintzen du. Harentzat, askatasunaren kontzeptuak guztiz bestelako esanahia du. Ez du Estatuko agintarien inolako beldurrik. (...) Harentzat, "askatasuna" agitatzaileek haren menpekoak, langileak, matxinada batera bultzatzeko aukera mugagabea da. Horregatik, kapitalista moderno handia gero eta eszeptikoago bihurtu da askatasunaren eta eskubide konstituzionalen balioari dagokionez. Orain, Estatu indartsu bat eskatzen du, masen gainean autoritate eraginkorra gauzatuko duen estatu bat.

— Arthur Rosenberg

Kontua zera da (...): matxinadaren diktaduraren eta Gobernuaren diktaduraren artean aukeratzea; (...) sastakaiaren diktaduraren eta sablearen diktaduraren artean; nik sablearen diktadura aukeratu dut, zintzoagoa baita.

— Donoso Cortés

Patuak geldialdi honetara ekarri nahi izan gaitu: Francoren heriotzaren 50. urteurrenena. Aukera paregabea hitz egin behar denaz hitz egiteko! Beraz, apeta horretaz baliatu eta fenomeno frankistari argi historiko pixka bat eman nahi diogu, zeharka bada ere, gure oraina argitzeko balio dezan.

Frankismoaren korapiloa askatzen saiatzeko, lehenik eta behin, honako hau ulertu behar dugu: fenomeno historiko oro nahasten eta batera jarduten duten hainbat faktoreren elkarketa dela. Frankismoa interpretatzeko, beraz, faktore horietako bakoitzaren edukia edo esanahia zehazten duen osotasun jakin hori ulertu behar dugu lehendabizi. Bestalde, analisi historikoari dagokionez, faktoreen ordenak produktua aldatzen duela baietsi behar dugu, eta, era berean, faktore horiek bi perspektibatatik aztertu behar ditugu; hots, bi ardatz izan behar ditugu kontuan. Alde batetik, tokian tokiko ardatza edo autoktonoa, esperientzia eta gertaera partikularretan oinarritzen dena. Ardatz lokal horrek panorama espezifiko bat osatzen du, teilakatatutako eragile jakinek osatutako fenomeno historiko konkretuak garatzea dakarrena: kontakizuna osatzen du. Beste aldetik, berriz, ardatz orokorrari erreparatu behar diogu, nazioarteko eta garaiko prozesuetatik abiatuta taxutzen dena. Bigarren ardatz horrek kontakizun partikular oro zeharkatu, eta zentzu transzendentalagoa ematen dio, tonua, hain zuzen ere. Gure gaurko trama bi maila horietan garatuko da, eta, horretan, baldintzatua eta baldintzatzailea da aldi berean.

Frankismoak, esperientzia historiko gisa, Gerra Zibilean izan zuen, funtsean, hasiera. 1936ko uztailaren 17an abiarazi zen estatu mailako operazio militarra, Errepublikaren aurka zeuden zenbait goi-kargudun militarrek hilabeteetan zehar prestatua. Hasiera batean arrakasta erlatiboa izan zuen arren, operazio horrek garaipen militarra eta lurraldearen kontrola nahiko azkar lortzea proiektatzen baitzuen, Estatuko hainbat eremu matxinatuen kontrolpean erori ziren. Horietan hasi zuen bere ibilbidea frankismoaren esperimentuak, ora-

indik ere gerra gauzatzean eta garaitzean buru-belarri zebilela. Gerra bizitza sozialaren ardatz bihurtu zen, zentzu guztietan: gerra frontean etsaia garaitzeko, eta gerra lurralde okupatuetan etsaia suntsitzeko. Xede horrek gizarteko eremu guztiak azpiratzen edo determinatzen zituen: gerra-ekonomia, justizia militarra, aginte politiko militarizatua.

Aipaturiko guztiak gobernu frankistaren profil formala mugatu, eta jardunbide frankistaren oinarriak zirriborratzen ditu. Era berean, eta bide batez, Erregimenaren izaeraz eta agertoki historikoan duen kokapenaz jabetzeko balio digu, bai estatuan, bai nazioartean. Izan ere, Espainiako Gerra Zibilak eta ondorengo erregimen frankistak argiki erakusten dute zein den historiaren joko-zelaian hartutako posizioa: eta, jarrera hartze ororen antzera, aldekoa eta kontrakoa ordezkatzeko dute. Baina, horri buruz argi hitz egiteko, hamarkada batzuk atzera eta gora jo behar dugu.

Espainia egitura sozial eta ekonomiko zaharkituarekin sartu zen XX. mendean. Kontinente zahar-raren ildo eta proiektzio orokorreari erantzun nahi zieten hainbat saiakera eta gertaera historiko izan baziren ere, XIX. mendeak eta bere berrikuntzek ez zuten ia arrastorik utzi Espainian. Garapen historikoa, edonola ere, berezitasunekiko sentikorra da: horiek onartu arren bultza egiten du, eta bere bilakaera orokorra jarraitzen du. Hala ere, zereginak ganbaran ezkutatzeagatik ez dira desagertzen: atzeratu eta pilatu egiten dira, harik eta, lekuri ez dagoen unean, ebatzi behar izaten diren arte. XX. mende hasierarako, beraz, estatuaren krisia asko-

Gerra bizitza sozialaren ardatz bihurtu zen, zentzu guztietan: gerra frontean etsaia garaitzeko, eta gerra lurralde okupatuetan etsaia suntsitzeko

tarikoa zen, eta modu kritikoan agertu zen: Estatu Batuen aurkako gerra-porrotak ozeanoz haraindiko azken koloniak galtzea ekarri zuen, eta, ondorioz, Espainiako Estatuak zituen arazo larriak agerian utzi eta sakondu egin zituen. Krisi ekonomikoa, fiskala, politikoa eta soziala bizi zituen aldi berean Erregimenak. Ekonomikoa, egitura ekonomikoak zaharkiturik zeudelako: antzinako jabetza-erregimenean oinarritzen ziren, Estatuko zenbait eremutan industrializazioa oraindik burutu gabe zegoen, eta hori guztia merkatu kolonialen galerak larriagotu egin zuen. Krisi fiskala, diru-sarrereren galerak eta gerraren gastuei aurre egiteko beharrak areagotua. Krisi politikoa, boterea txandakatzen zuten alderdiek herritarrak ordezkatzeko autoritate oro galdu zutelako, nahiz eta, geroago ikusiko dugun bezala, horrek patroï orokorrako batzuei erantzuten dien. Azkenik, krisi soziala zegoen, gizartearen atzerapen ekonomiko eta kulturalak aktore politiko antagonista edo, gutxienez, menderakaitzekin topo egin izanaren ondorio. XX. mendearen lehen hamarkadak desoreka horri guztiari aurre egiteko saiakera-bilduma bat izan ziren. Mendearen hasiera ahalegin horiez beteta egon zen, baina urteetan zeharreko birsortze- edo modernizatze-borondatearen iraunkortasunak berak agerian uzten du aipatu zeregina burutzeko zailtasuna, bai eta kanpaina horien arrakasta eskasa ere. Hain zuzen ere, saiakera horietan hiru buruko erresistentziarekin topatu ziren (batzuk parez pare, beste batzuk ez horrenbeste); hots, kontakizun honen zeharkako ardatz batekin egin zuten topo, zeina oligarkia espainiar sortu berritik (ez, ordea, ehuneko ehunean), Elizatik eta Armadatik abiatuta osatu baitzen. Bien bitartean, Espainiako krisia larriagotzen ari zen, eta egitura ekonomiko eta politikoei bertako burgesiaren boterea eta atzerriko kapitala ezartzearen eta indartzearen alde egiten zuten.



XX. mende hasierarako, beraz, estatuaren krisia askotarikoa zen, eta modu kritikoan agertu zen: Estatu Batuen aurkako gerra-porrotak ozeanoz haraindiko azken koloniak galtzea ekarri zuen, eta, ondorioz, Espainiako Estatuak zituen arazo larriak agerian utzi eta sakondu egin zituen

Nolanahi ere, ondoren etorritako prozesuak azkartu zituen paradigma-aldaketa, nazioarteko paradigma-aldaketa orokor batetik zetorren. Gizartea eta bere oinarriak aldaturik zeuden jada, baita bere protagonistak ere, eta hori argitara ateratzea denbora kontua baino ez zen. Hala, gizarte kapitalistaren ezarpenak inplikazio handiak izan zituen esparru sozial eta politikoan. Nolabait esateko, ekoizpen-dinamika kapitalistekin korrelazioan sortutako gizarte berri horrek hizkuntza berri bat hitz egiten zuen. Hizkuntza horrek forma politiko aristokratikoak zaharkituta utzi zituen azkenean, eta gramatika politiko berri horretan masek beren lekua egin nahi zuten. Paradigma-aldaketa horrek, hala ere, nazioartean eman zituen lehen kolpeak. Lehen adierazpenak, dagoeneko umotuak, Urriko Iraultzan eta Italiako faxisten botere-hartzean ikus ditzakegu. Biak ala biak hainbat esperientziaren erreferentzia politiko izan ziren, geroago berrikusiko dugun bezala.

Paradigma-aldaketa hori Espainian ere nabaritu zen; hasiera batean, elite politikoezikiko urruntzean eta horien autoritate-galeran. Prozesu horrekin batera, langile-erakunde asko sortu ziren estatuko hainbat tokitan, baita erakunde nazionalistak ere. Indar politiko horiek kementsu zeuden garai horretan, eta hainbat manifestazio egin zituzten; hala, ordena politikoaren ezegonkortasuna elikatu zuten, zeina egunez egun erasokorrago eta kriminalago bihurtzen ari baitzen, inguratutako animalia baten antzera. 1917ko abuztuaren 13ko grebaren ondorioz lehertu zen Espainiako Estatuan ezegonkortasun politiko sakon eta luzeari hasiera eman zion garaia, eta Primo de Riveraren diktadura izan zen hura egonkortzeko lehen ahalegin irmoa. Gertakari horren analisisia interesgarria izanik ere –aztergai dugun gaiari testuingurua eta zenbait elementu eransteke besterik ez bada ere–, daukadan espazio txikiak, jorratu beharreko gaiaren hedadurak eta haren zokoguneez horretan pausatzea eragozten didate. Esango dudan bakarra zera da: Primo de Riveraren diktadurak lehengo aldiz erabili zuen “burdinazko eskua” Espainia bi norabide nagusitan egonkortzeko. Lehenengoa, Espainiak zekartzan eragozpen historikoak modernizatzea edo gainditzea, ezegonkortasun soziala betikotzen eta areagotzen zuten eta. Bigarrena, egonkortasun hori bermatzeko errepresioa erabiltzea eta etsaia ezabatzea. Bestalde, gerora erregimen frankistan bere lekua egin eta garatu ziren beste elementu batzuk ere begizta ditzakegu. Hala ere, esan gabe doa esperimentu horrek porrot egin zuela bi helburuei dagokienez. Egingako proposamenek ez zioten hel-

Ekoizpen-dinamika kapitalistekin korrelazioan sortutako gizarte berri horrek hizkuntza berri bat hitz egiten zuen. Hizkuntza horrek forma politiko aristokratikoak zaharkituta utzi zituen azkenean.

du aipatutako arazoen muinari: egitura zaharren aldaketa ez zen agenda politikoan sartzen, industrializazio-prozesuak orokortu gabe jarraitzen zuen eta oligarkia minoritario batek eta atzerriko kapitalaren eragin izugarriak kontrolatzen zuten. Hortaz, jabetza-erregimena ez zen funtsean aldatu. Gelditasun horrek oposizioaren hazkundea ekarri zuen Erregimenaren azken urteetan, eta, hain zuzen ere, utzikeria hutsagatik agortu zen. Eta, momentu horretan, II. Errepublika iritsi zen (*dictablandaren impasse* laburraren ondoren).

II. Errepublika, beraz, ebatzi gabeko estatu-mailako betebeharrekin eta nazioarteko testuinguru korapilatsu batekin topatu zen; alegia, krisi eko-

nomiko betearekin. Egoerak ordura arteko berdina izaten jarraitzen zuen: eredu sozio-ekonomiko zaharkituaren gainbehera eta eredu horren oinarriak aldatzeko beharra. Lehen aipatutako oztopo horien halabeharrezko sintesiak Errepublika eta bere garapena modu zorigaitzean determinatu zituen. Gurrpil zoro bat zen. Espainiako gizartea modernizatu behar zen, bai bere egitura sozioekonomikoa eta politikoa atzean utz zezan, bai alternatiba eraginkor eta egonkor gisa finka zedin (bere kontzeptuaren garapena bermatzeko *sine qua non* baldintza). Baina, beste alde batetik, Espainiaren modernizazio-lanei ekiteko beharrarekin batera, ezinbestekoak ziren zeregin hori ziurtatuko zuten

Gurrpil zoro bat zen. Espainiako gizartea modernizatu behar zen, alternatiba eraginkor eta egonkor gisa finka zedin. Baina Espainiaren modernizazio-lanei ekiteko beharrarekin batera, ezinbestekoak ziren zeregin hori ziurtatuko zuten indar politikoak.



oinarri sozialak eta indar politikoak ere. Hori guztia, klase interesekiko zeharo zatituta zegoen gizarte batean. Izan ere, Espainia trantsizio-etapa bete-betean zegoen: trantsizio berantiarra kontinente zaharreko beste leku batzuekin alderatuta, baina trantsizioa edonola ere. Eta horrelakoek arazo politiko handiak ekarri izan dituzte historikoki: askotariko borondate eta aldarrikapenen existentziak klase-programa iragazi, eta hura praktikan egikaritzea galarazten du. Horra hor Sobietar Batasuna! Izan ere, zibilizazio-ereduen arteko trantsizioa, historikoki, tentsioaren, indarkeriaren eta inposaketaren bidez gertatu da.

Kasu honetan ere, ez gara gehiegi luzatuko Errepublikako politikei dagokienez, lehen aipatutako arrazoiengatik. Hala ere, horiei buruzko hiru puntu bai azpimarratu nahi nituzke, lotura zuzena baitute altxamenduari bide eman zion eta geroago frankismoan gorpuztu zen borondatearekin. Areago, hiru puntuok oraindik eta garrantzi handiagoa hartzen dute geroago ikusiko dugun panorama historiko orokorraren argitan.

Lehenik eta behin, itzul gaitezen gizarte-ereduen arteko trantsizioaren puntura. Historian zehar, gizarte-eredu guztiak gizarte-posizio erabat kontrajarriak eta, ondorioz, interes objektibo antagonikoak dituzten gizarte-taldeen existentzian oinarritu dira. Beraz, gizarte-talde guztien interesak asetzea objektiboki ezinezkoa da. Hori da klase-borrokaren oinarria, eta funts hori are konplexuagoa bihurtzen da trantsizio-garaietan, gizarte-osaera heterogeneoagoa eta zatikatuagoa izaten baita garai horietan. Hori izan zen lehen Damoklesen Ezpata Errepublikaren buru gainean. Araquistáinen hitzetan: “Hauxe izan zen Azañaren akatsa, bere utopia errepublikano ederra: pentsatzea posible zela klase-estatua ez zen estatu bat eraikitzea eta gidatzea, eta (...) klase-borroka eta gerra soziale-rako sena maila guztietan gaintitzea”. Ildo politiko horren garapenaren ondorioz, Errepublikak gizarteko ia sektore guztien etsaitasuna lortu zuen, eta horrek gatazka eta ezegonkortasun politiko handia ekarri zituen.

Bigarrenik, gobernuaren osaera zegoen. Garaian garai, II. Errepublika kolore desberdinetako gobernuetan gorpuztu zen, baina horiek guztiak lehena-go ikusitako paradigma orokorraren aldaketaren isla baino ez ziren izan. Gramatika politikoa berria zen jada, eta horrek txandakako politikarien klase-izaerari ez ezik, haien politiken orientazioari ere eragin zion. Horrekin, ez dut esan nahi alderdi edo erakundeen orientazio politikoak borondate iraultzailea zuenik, ez gaizki ulertu. Aitzitik, politi-



ka pentsatzeko eta gauzatzeko orduan masa-fakto-reak funtsezko garrantzia hartu zuela diot. Norekin egin politika, horra hor kontua.

Hirugarrenik eta azkenik, bere programa. Ez dut aztertuko Bigarren Errepublikak abian jarritako programaren klase-izaera. Lehenik eta behin, ez delako hain erraza hura marraztea: haren une eta etapak bereiztea lausoegia da, eta azterketa eta azalpen sakon eta zabala beharko lituzke. Eta bigarrenik, ez delako testuak proposatzen duen zereginera egokitzen. Horren ordezt, Errepublikak arlo ekonomiko eta sozialean eraldaketa sakona egiteko aukera zabaldu zuela ikusira mugatuko gara. Espainiako egitura ekonomiko eta politiko zaharrak ezabatze-ko aukera, eta, horren ordezt, ekida berri bat zerotik hastekoa. Forma errepublikanoa, nekazaritza-erreforma, hezkuntza-erreforma, erreforma

Araquistáinen hitzetan: "Hauxe izan zen Azañaren akatsa, bere utopia errepublikano ederra: pentsatzea posible zela klase-estatua ez zen estatu bat eraikitzea eta gidatzea"

Urriko Iraultzarekin hasitako iraultza sozialistak gizarte modernoa zeharkatzen zuen gatazka politikoa birdefinitu eta zehaztu, eta fase berri batera eraman zuen

militarra, Estatuaren laikotze-prozesua... Erreforma horiek guztiek Espainiako formazio sozialeko egiturazko nukleoan eragina izateko potentzialtasuna zuten.

Lehen adierazi dudan bezala, nolanahi ere, testuinguru historiko orokorrak elementu horietako bakoitza norabide jakin batean hezurmamitzen du, eta esanahi historikoa ematen dio. Eta zein zen, bada, nazioarteko testuingurua garai hartan? Nik esango nuke historia garaikidearen inflexio-pun-

tua, aztergai dugun garaira arte behintzat, Urriko Iraultza dela. Xehetasunetan sartu gabe, Urriko Iraultzarekin hasitako iraultza sozialistak gizarte modernoa zeharkatzen zuen gatazka politikoa birdefinitu eta zehaztu, eta fase berri batera eraman zuen. Azpimarratzekoa da gertaera hark izan zuen dimentsio transzendental; bere eragina ez baita mugatzen munduko proletariotzan izan zuen oihartzunera, ezta hari jarraitu zioten iraultza guztietara ere. Aitzitik, gatazka politikoa gauzatzeko eremuak definitzerakoan izan zuen inpaktua nabarmendu nahi dut, eta, modu horretan, garaiko tonua finkatzeko izan zuen gaitasuna. Carl Schmitt-ek bereizketa politiko espezifiko deitzen zuenaren –hau da, “lagun-etsai” bereizketaren– definizio heldua. Bestela esanda, azken muturrera eraman zuen bi borondate politiko antitetikoen arteko gatazka, halako moldez non garapen historikoa gai existentzial bihurtu eta gertaera edo prozesu historiko bakoitza gatazka horren barruan kokatu zuen.

Urriko Iraultza, nolanahi ere, Lehen Mundu Gerrako isurietako bat baino ez zen izan. Hori dela eta, garaia ren zentzu orokorrari buruz hitz egiteaz

gain, gerrarteko garaia ren testuinguru politiko bereziaz hitz egin behar dugu. Izan ere, mundu gerrak arrasto latza utzi zuen garaipenaz gozatzer a iritsi ez ziren herrialdeetan: Austria-Hungariako Inperioa txikitu egin zuten, eta kaiserraren Alemaniako gobernua Weimarko Errepublikan amildu zen, biak ala biak gerra galtzearen ondorio. Bestalde, Italiako kasua berezia izan zen; izan ere, izatez irabazlearen bandoan egon arren, bakearen antolaketak porrot-sentimendu ikaragarriarekin utzi zuen Italiako gizartea. Espainiaren kasuan, neutraltasunetik bake-garaietako ekonomiarako trantsizioa garesti ater a zitzaion, eta horrek hainbat zailtasun sortu zituen. Hala, horiek guztiek osatzen dute gerran galdu zutenen bandoa.

Elementu horiek guztiek erregimen frankista –haren kontzeptua, hobeto esanda– hobetoxeago kokatzen laguntzen digute. Izan ere, bere protagonistetatik, adierazpen partikularretatik eta mutazioetatik harago, frankismoa, azken batean, kontzeptu bat, proiektu bat gauzatzea da: Espainiako boterearen egiturak bidegurutze historiko bati emandako erantzun partikularra. Hamarkadaz hamarkada luzatzen eta sakontzen ari zen krisiari irtenbidea emateko birkonfigurazio-plan bat. Hurrengo lerroetan, ikuspegi kronologikoago batera itzultzeko asmoa dut.

Bada, 1936ko hauteskundeak bide horien guztien bidegurutzea izan ziren Espainian. Errepublikak Biurteko Kontserbadore edo Erradikal-Cedista izenekotik zetorren. Azken horretan, herrialdeko aberats handiek gobernuaren gidaritza hartu zuten berriz ere, gobernuaren politiketan biraketa bat egin eta aurreko gobernuak hasitako bideak desgiteko asmoz. Biurtekoan aurrera egin ahala, botere-hartze horrek gora egin zuen. Bestalde, gatazka sozial eta indarkeria politiko handiko garaia izan zen: langileen mugimenduaren bultzadak eta bere benetako antagonista berriaren garapenak (Falange Española alderdi faxista eta eskuadristak) eraginda, batez ere, baina baita gobernuaren errepresio kronifikatuak ere. Eta garai hartako gatazka-mailaren eta ezegonkortasun politikoaren gailurra izan ziren, hain zuzen ere, 34ko maiatzeko nekazarien greba orokorra eta, batez ere, urte bereko urriko mugimendua, Asturiasko Iraultzan amaitu zena. Izan ere, azken horretako talka politikoen ondorioz ia 2.000 pertsona hil ziren (gehienak langile-mugimendukoak). Garaia mota guztietako mehatxu eta planez josia zegoen: matxinada iraultzaile eta kontrairaultzaileen mehatxuak, batetik, eta (jada hasiak zeuden) kolpe militarerrako planak, bestetik. Horiek guztiek osatzen zuten Espainiako po-

Izan ere, bere protagonistetatik, adierazpen partikularretatik eta mutazioetatik harago, frankismoa, azken batean, kontzeptu bat, proiektu bat gauzatzea da: Espainiako boterearen egiturak bidegurutze historiko bati emandako erantzun partikularra

litikaren esparru orokorra. Nazioartean Bigarren Mundu Gerraren atarian zeuden, bete-betea. Momentu hartan, Espainiako eskuineko hainbat sektorek denbora zeramaten hurbilketak egiten (gobernu mailakoak ere) Salazarren erregimenarekiko, Italia faxistarekiko eta Alemania naziarekiko. Hilabete batzuk geroago, hiru horiek Gerra Zibilean izan zuten inplikazioa erabakigarria izan zen. Hauteskundeetako emaitzek orain arte deskribatu dugun egoera modu paregabea erakusten dute: %70etik gorako partaidetza egon zen, eta portzentajezko alde txikia zegoen aurrez aurre zeuden bi bloke handien artean, sekulakoa “zentroko” alderdiekiko atxikimendu ziztrinaren aldean. Hala, Fronte Popularraren gobernua eratu zen. Nolanahi ere, demokrazia abstraktuaren euste-horma delakoa ez zen nahikoa izan masen grin iraultzailea baretzeko. Landako proletarioek beraien kabuz ekin zioten Nekazaritza Erreformaren konkistari: lurak okupatu, eta grebak egin zituzten bata bestearen atzetik, kapitalen ihesari eta enpresariak ezarritako neurri murriztaileei erantzuteko. Dena aurrera zihuan, harik eta 1936ko uztailaren 17an altxamendu militarra gauzatu zen arte.

Gerra Zibilak frankismoaren hasiera ekarri zuen, baina ez bakarrik aurretiaz adierazitako zergatiaren ondorioz. Gatazkaren hastapenetik eta horretan zehar okupatutako lurraldeek, hasieratik, matxinatuen parametro politikoen arabera funtzionatzen zuten. Gerrari azpiraturik egonik ere,



Frankismoa eraldaketa-prozesu bat izan zen, eta horretarako, beharrezkoa zen garbiketa eta modelatze politikoko prozesu bat aurrera eramatea, herritartasunaren kontzeptu berri bat sortzea. Indarrez.

gobernu frankista eratzen hasi ziren, eta lan-ildo jakin batzuk ezarri zituzten, erregimen helduago baten aurretiazko irudia marraztu zutenak. Horrez guztiaz gain, esan behar da Gerra Zibilak funtzio zentral bat bete zuela frankismoaren kontzeptuari dagokionez, eta, beraz, frankismoaren beharrezko unea izan zela. Ezaugarri eta bilakaera konkretuko erregimen politikoa izateaz gain, frankismoa eraldaketa-prozesu bat izan zen. Krisiari erantzuteko berregituraketa-proposamen bat, bi maila nagusitan garatu zen prozesua. Batetik, Espainiako egitura ekonomikoa parametro kapitalistetan garatzen lagunduko zuen diseinua proiektatu eta burutu zuen. Eta horretarako, beharrezkoa zen garbiketa eta modelatze politikoko prozesu bat aurrera eramatea, herritartasunaren kontzeptu berri bat sortzea. Indarrez. Ildo horretan, bai borroka-frontean bai erretagoardian, Gerra Zibila trauma bat izan zen (modelatze-lan horietarako erabilitako buztinetako bat); baina, batez ere, etsaia guztiz ezabatzea lortu zuen dispositibo eraginkorra izan zen. Frankismoa, beraz, dimentsio positibo eta funtsezko batetik abiatuta osatu zen, baina baita dimentsio negatibotik ere, hori ere funtsezkoa. Biak ala biak, unitate beraren poloak ziren. Bigarren dimentsio hori, era berean, ez zen Erregimenaren lehen urteetako erabateko errepresiora mugatu, nahiz eta, jakina, funtsezko zeregina betetzen duten. Egin dezagun kontu frankismoaren lehen etapan 200.000 inguru eraildako egon zirela, frankismoaren gailur edo emaitza esplizituena, baina baita tortura sistematikoa, atxiloketak eta gainerako errepresio-tresnak ere, ehundaka milaka erbesteratu zenbatu gabe. Prozesu luze eta konplexua izan zen eta da, denboran zehar garatu eta gaur egun arte iritsi dena; izan ere, prozesuak frankismoa bera (garai historiko gisa) transzenditzen duen helburu bati erantzuten dio.

Era berean, etapa honek lagun-etsai bereizketaren definizio espezifikoa zehaztu, eta modu erradikalean ezarri zuen. Matxinatuen bandoa programa frankistaren bueltan finkatu zen, etsai komun batenganako gorrotoak elkartu zituen erakunde eta joeren multzoa izateraino. Salamancako artza-

pezpiku Enrique Pla y Denielek esan zuen bezala, falangistak, tradizionalistak, monarkikoak eta katolikoak zeuden, bandera beraren pean, erlijioaren, aberriaren eta zibilizazioaren gurutzadan, eta komunismoaren aurkakoan. Beren albo banatan, botere lurterra, Armada; eta botere zerutiarra, Eliza Katolikoa: funtsezko zutabeak Francoren erregimenari dagokionez. Testuaren tesi nagusiari dagokionez, lekukotzarik argigarriena dimentsio hori maila internazionalen aztertzea dugu. Frankismoak lehen urteetan izandako sinpatiak garaiko gobernu faxistetatik edo suzedaneo kontrairaultzaileetatik zetozen arren, Bigarren Mundu Gerran

interes inperialista partikularrak ezabatzeak argitarara atera zituen bai egiazko etsaitasunak, baita oinarriko gatazka politikoa ere. Demokraziak, beste behin ere, jantzi bat besterik ez dela erakutsi zuen, klima berotzen hasten denean kentzen dena. Ezkutu-egonik ere, Espainiako Gerra Zibilaren hasieratik bertatik ikus daiteke hori, potentzia aliatuek gatazkan esku hartzeari emandako ezezkoan, eta eragile horiek guztiek Erregimenarekin zituzten harreman komertzial eta diplomatikoetan eta horietako batzuek egindako adierazpen konkretuetan.

Armada prozesu frankistaren nukleo gogorra izan zen. Errepublikaren aurreko Espainiatik jasotako egitura militarra zen, bi ezaugarri nagusik hauspotua: batetik, izpiritu inperial eta abenturazaleak, eta, bestetik, beraiek “abandonatu” izana eta bigarren mailako rol batera kondenatu izana leporatzen zioten egitura politiko batekiko gorroto sendoa. Hala, Azañak proposatutako erreforma militarrek ez zuen lortu armada behar bezala garbitzea eta bertako militar eta goi-kargudunen interes partikularrak eta ameskeriak ezabatzea (argi

Frankismoaren lehen urteetan, matxinatuen bandoa programa frankistaren bueltan finkatu zen, etsai komun batenganako gorrotoak elkartu zituen erakunde eta joeren multzoa izateraino





**Komunismoaren aurkako
gurutzadan, falangistak,
tradizionalistak,
monarkikoak eta
katolikoak beren albo
banatan zituzten, botere
lurtarra, Armada;
eta botere zerutiarra,
Eliza Katolikoa**



eta garbi, ez gara armada osoaz ari, garai hartan bitan zatiturik zegoen eta). Lehen aipatu bezala, Espainia salbatzeko borondatea bideratu zuen gorpuzta izan zen, baita hori egiteko prozesua katalizatu zuena ere. Une horretatik aurrera, armadak egin-kizun erabakigarria bete zuen Erregimenari forma eta sostengua emateko orduan, Espainiako egitura politiko eta estatalean funtsezko lekua berreskuratzearen truke.

Eliza Katolikoa (ez bere osotasunean, esan beharra dago) berehala lerrokatu zen alderdi frankistarekin: izaera zirkunstantzialeko zenbait elementurekin bat egin zuten (irakur bedi Errepublikaren laikotasun-norabidea, edo kultu-lekuak eta elizaren jabetzak erre izana, herriaren gorrotoaren ondorioz), baina batez ere egiturazko elementuekin eta politikoekin lerrokatu zen Eliza. Arestian azaldutako gurutzadan parte hartu zuen, eta funtzio bikoitza izan zuen: legitimitatea eta babesa ematea Erregimenari, Eliza oinarritzko erakunde bihurtu zedin, bai Erregimenari oinarri soziala emateko, bai esparru politiko-erlijiosoa aitortzeko ere, aro aurrerarikideko oihartzunak zituen teologia politiko berri bat berreskuratzeko. Horrela, Frankismoa Estatu katoliko gisa eratu zen, bere oinarria haraindikotasun erlijiosoan aurkitzen zuen forma politiko gisa.

Alderdi Bakarra zegoen: Falangea. Mugimendu bakar hori erregimenaren eskola zen, bai maila sozialean, bai politikoan; eta, horrela, Erregimenaren oinarritzko egitura osatzen zuen. Bere eginkizuna ordena bideratzea zen, kaos soziala antolatzea. Horretarako, herritarra birdefinitzetik hasi zen, eta herritarraren kontzeptu orok bezala, norbere burua bestetasunaren bidez definitzen zuen. Helburua: doktrina politikoa kondentsatzea eta kode ideologiko eta jokabide jakin batean sartzea, ondoren masa-erakunde batean kokatzeko. Esamoldea zilegi bazait, Espainiaren berrezarkuntza berrezartzeko ahalegina ikus dezakegu Falangean: canovismoa koska bat estutzeko eta masen politika-garaira egokitze forma berria. Horrek guztiak gaitasunez hornitzen du erregimen politiko berria: batetik,

**Esamoldea zilegi
bazait, Espainiaren
berrezarkuntza
berrezartzeko ahalegina
ikus dezakegu Falangean:
canovismoa koska bat
estutzeko eta masen
politika-garaira
egokitze forma berria**

herritar kontzeptutik kanpoko hondakinak edo elementuak ezabatze ahalmena; eta, bestetik eta, are garrantzitsuago, masak programa edo proiektu politiko batean integratzeko aukera, edukiagatik eta formagatik arrotza eta aurkakoa zaion proiektuan, hain zuzen ere.

Frankismoa gerren arteko krisiari erantzuteko Espainiako formula partikularra izan zen. Krisia sistemikoa zen, gizartearen maila guztietara hedatu eta oso modu esplizituan eta oldarkorrean adierazi zena, garaiko koordenatu historiko orokorre gain (*impasse* larri hori bere programa inposatzeko aprobetxatzen saiatzen diren bi borondate antagoinikoren arteko aurrez aurreko talka). Espainiako Estatuaren kasuan, horri beste elementu batzuk gehitu zitzaizkion, egitura ekonomiko, politiko eta sozialen anakronismo sakonetik eratorriak. Frankismoaren edukia, beraz, orduko Espainia eta gaur egungoa lotzen dituen programa bat izan zen, parametro kapitalista batzuetan modernizatu zuena. Era berean, Espainiako gizartearen berezitasunei eta garaiko koordenatu politiko orokorreari erantzun zien, eta marko politiko baztertzailerak (baita sarraskitzailerak ere) eta masazkoa sortu zuen, egitura ekonomiko eta sozial berri horren garapena eta egonkortzea ahalbidetu zuena eta horrek denboran irauteko baldintzak bete zituen. ●

FRANKISMOA: ESPAINIAKO KAPITALISMOA EGONKORTZEKO ZUTABE EZKUTUA

Testua — **Leire Andino**

Irudia — **Amaiur Ruiz**



**II. Errepublikaren
aurkako kolpeak ez zuen
soilik botere politikoaren
aldaketa inposatu;
gizartearen egitura
ekonomiko eta soziala
bortizki berregituratu zuen,
bereziki langile klasearen
antolaketa historikoa
oztopatzeko helburuarekin**

Espainiako XX. mendearen lehen erdia gatazka sozial eta politiko sakonez markatuta egon zen, eta 1936ko uztail-eko altxamendu militarrek inflexioa puntua ekarri zuen. II. Errepublikaren aurkako kolpeak ez zuen soilik botere politikoaren aldaketa inposatu; gizartearen egitura ekonomiko eta soziala bortizki berregituratu zuen, bereziki langile klasearen antolaketa historikoa oztopatzeko helburuarekin. Espainiako Gerra Zibila (1936–1939) gatazka sozial eta politiko horien muturreko adierazpena izan zen, eta haren ondorengo garaipena erregimen autoritario berri baten oinarria bihurtu zen. Francoren diktadurak “obedientzia, lan-diziplina eta nazioaren batasuna” printzipioetan oinarritutako ordena ezarri zuen, non Estatuak militarrek, Elizak eta enpresariak osatutako aliantzan finkatu zen. Horren bidez artikulatu zen gizartearen kontrol politiko eta ekonomikoa, eta langile klasearen antolaketa independente oro desagerrarazi zen, lanaren esfera osoa Estatuaren menpe geratu baitzen.

Testuinguru horretan, frankismoaren lehen hamarkadak funtzio ekonomiko propioa izan zuen: gerraosteko suntsipen egoeran kapitala berreraikitze eta merkatu nazional egonkortua antolatzeko baldintzak sortzea. Gerraosteko autarkia ez zen isolamendu ekonomiko hutsa; Estatuaren kontrol zorrotza ezarri zen ekoizpenean, prezioetan

eta banaketan, eta horrek ahalbidetu zuen sektore ekonomiko jakin batzuk berrindartzea, batez ere oligarkia tradizionalarekin eta Erregimenarekiko fideltasuna erakutsi zuten taldeekin lotutako enpresen kasuan. Soldaten izoztea, errazionamendua eta lan-eskubideen murrizketa erabakigarriak izan ziren ekoizpenaren berreraiketa lehenesteko eta kapital pilaketa bizkortzeko, langileen bizi-baldintzak sistematikoki okertzen ziren bitartean.

Errepresioak funtzio ekonomiko garbia izan zuen lehen fase horretan: lan esparruen edo bor-txazko lanen erabilera masiboak eta sindikatu auto-nomoen deuseztatzeak lan-indar merke eta dizipli-natua sortu zuten. Estatuaren eta enpresa pribatu-arte harreman estuak indartu ziren: greben de-bekua, lan-gatazken kriminalizazioa eta kontrol polizial iraunkorra ezinbesteko tresna izan ziren lan-diziplina zorrotza ezartzeko eta industria zein azpiegitura estrategikoak berreraikitzeke.

Azken batean, erregimen frankista kapitala-
ren metaketa egonkortzeko eta merkatu nazional
modernizatua antolatzeko egitura autoritario era-
ginkorra izan zen. Diktadurak lan-indar diziplina-
tua, Estatuaren interbentzio zuzendua eta oposizio
politikoaren kontrol zorrotza uztartu zituen. Horrek
asko erraztu zuen ondorengo hamarkadetan gara-
tuko zen eredu ekonomiko kapitalistaren oinarritzko
egitura sendotzea. Hurrengo lehenietan, beraz, kapi-
talismoaren modernizazio eta finkapenerako emanda-
keta aldaketa ekonomiko nagusietan zentratuko
gara bereziki eta, horretarako, hamarkadaz hamar-
kada jazo ziren aldaketa nagusiak aletuko ditugu.

Gerra garaian, 1936 eta 1939 artean, Espainiako ekoizpen nazionala %30 baino gehiago jaitsi zen, eta industria astuna zein nekazaritza izan ziren kaltetu nagusiak. Milaka langile lanik gabe geratu ziren, eta beste askok erbestera bidea hartu zuten. Altxatu- en bandoan, 1937tik aurrera batasuna nagusi izan zen. Francoren figura indartuta eta Falange Española y de las JONS inspirazio nazi-faxistako partidua- ren oinarrietatik abiatuta. Interbentzionismo eko- nomikoaren maila altua izan zen gerra irabazteko beharrezkoak ziren baliabideen kudeaketan; horrek gerra inflazio handirik gabe finantzatzea ahalbide- tu zuen. Kontrara, alde errepublikazalean gerra fi- nantzatzeko gehiegizko diru-jaulkitzearen ondorioz, prezioak asko igo ziren, eta pezetaren balioak galera handia izan zuen (estatu berean, balio ezberdineko bi pezeta egon ziren urte haietan merkatuan).

Gerran azpiegitura publikoen zati handi bat —trenbideak, portuak eta lantegiak— suntsituta geratu ziren, eta herrialdea hondamendi ekonomi-koan murgildu zen. Gosea, inflazioa eta oinarritzko



baliabideen eskasia bihurtu ziren eguneroko errealitate. Alderdi faxistak, enpresari eta lur-jabe handiekin batera, aurreko garaietako langile klase antolatua lortzeko deuseztatzea izan zuen helburu (desjabetutako lurren eta enpresen itzulera aurreko jabeen, kolektibizazio ekintzetan parte hartu zuten langileen aurkako errepresioa, lan eskubideen deuseztapenak...).

Gerra garaian eta haren ostean, errepresio ekonomikoa gizartearen kontrolerako tresna eraginkorra bihurtu zen: “depurazio ekonomikoak” sistematikoki ezarri ziren enpresetan, eta “susmagarri politiko” izate hutsagatik lanpostuak galtzea ohiko bihurtu zen.

Autarkiaren politikak ez zuen hazkunde ekonomikoa bilatzen, botere-egitura berri batera irakuntza baizik. Erregimena Gerra Zibileko krisi ekonomiko eta sozialaz baliatu zen merkatu nazional itxi bat sortzeko. Kanpoko lehiarik gabe, kapital pribatu espainiarrak, ahulduta zegoen arren, berriz ere boterea pilotzeko aukera izan zuen. Autarkia, funtsean, kapital metaketa berraktibatzeko babesleku izan zen.

Erregimen frankista kapitalaren metaketa egonkortzeko eta merkatu nazional modernizatua antolatzeko egitura autoritario eraginkorra izan zen. Diktadurak lan-indar diziplinatua, Estatuaren interbentzio zuzendua eta oposizio politikoaren kontrol zorrotza uztartu zituen.

Baina politika itxi hark beste funtzio bat ere izan zuen: frankisten barne aliantzak kohesionatzea. Armadak, lur-jabe handiek, industria oligarkikoek eta Falangeak autarkian aurkitu zuten interesak le-rrokatzeko esparrua. Nekazaritzak prezio babestuak izan zituen, industriak merkatu segurua, eta esta-tu aparatuak kontrol osoa. Ekonomia, beraz, botere bloke berriaren eraikuntza-tresna bihurtu zen. Lan-gile klasearen diziplinamendu zorrotzak osatu zuen birkokapen hori. Gerra Zibilaren ondoren sindika-tuak desegin, soldatak mugatu eta lan merkatuaren militarizazioa ezarri zen. Lan indar merkea eta kon-trolatua izan zen kapitalismo frankistaren berreraikuntzaren oinarri nagusietako bat. Horrela ezarri ziren gerora hazkunde miragarriaren oinarriak.

Eta, bitartean, pobrezia eta gabezia “sakrifizio nazional” gisa aurkeztu zituen erregimen frankistak, eta diskurtso horrek eguneroko miseria zilegiztatu zuen. Herrialdearen sufrimendua ez zen politikak baten porrot moduan adierazten, baizik eta etorkizun oparo baten prezio gisa.

Horrela ulertuta, autarkia ez da modernizazioaren aurkako parentesi bat, baizik eta frankismoak modernizazioa prestatzeko behar izan zuen funtsezko aurrefasea. 1959ko irekiera ekonomikoa ez zen hutsetik sortuko: autarkiak eraiki zituen kapitalaren egitura berriak, botere bloke egonkortua, lan merkatuko diziplina eta nazioaren izenean ekonomia zentralizatzeko logika. Gerora etorriko zen modernizazioa autarkiaren azpiegitura sozial eta politikorik gabe ezinezkoa zatekeen.

1. Taula

Soldata errealen bilakaera, 1936-1953

Urteak	Meatzaritza	Metalurgia	Ehungintza	Nekazaritza
1936	100	100	100	100
1940	67	68	70	72
1945	45	45	52	57
1953	23	21	24	25

Iturria: A. Carreras, “Dinámica económica y cambio estructural durante el decenio bélico, 1936-1945”, *El Primer Franquismo* liburuan, J.L. García Delgado, ed., Siglo XXI, Madril. 12. or.

Pobrezia eta gabezia “sakrifizio nazional” gisa aurkeztu zituen erregimen frankistak, eta diskurtso horrek eguneroko miseria zilegiztatu zuen

Bizitzaren zirrikitu guztietan esku hartzeko gaitasuna garatzea zuen helburu Estatuak. Eta interbentzionismo hori modu askotan garatu zen, lanaren kontrola eta errepresioa izanik zutarri garrantzitsuenetarikoak. 1938an, Gerra Zibila amaitu aurretik, Lanaren Forua onartu zen, erregimen frankistaren lan araubidearen oinarria bihurtuko zena. Foruaren arabera, greba egitea debekatua zegoen, negoziazio kolektiborik ez zen onartzen, eta sindikatu guztiak Falange Española Tradicionalista y de las JONS alderdi bakarrari lotutako sindikatu bertikalean integratu ziren. Teorian, “langile eta enpresariaren arteko elkartasuna” zen helburua; praktikan, kontrol sozial eta politikorako mekanismo zentralizatua izan zen sindikatu hori. Boterea enpresaburuen eta funtzionario frankisten esku geratu zen, eta langileek ez zuten ordezkaritza errealik. Soldatak “oinarrizko soldata” izeneko gutxieneko kopurura mugatu ziren, eta ordainsari txiki horiek

“aberriaren aldeko sakrifizioaren” diskurtso moralaren bidez justifikatu ziren. Enpresariak eta langileak erakunde berean nahastuta, “familia bat” zen enpresaren barruan langileek ez zuten ordezkaritza kolektibo bat izateko eskubiderik eta, hala, langileen esplotazioari alfonbra gorria ezarri zitzaion.

Autarkia garaian, merkatu beltzak edo estraper-loak hartu zuen ekonomiaren oinarri ezkutua. Esta-tuaren kontrol mekanismoetatik kanpo, auzoko eta senideen arteko sare informalek ahalbidetu zuten biziraupena, eta truke sareen bitartez komunitatea-ren egonkortasuna bermatu zen. Horrelako sareak, legez kanpokoak izan arren, biziraupenaren giltza izan ziren, eta askotan emakumeek osatu zituzten. Era horretako jardueretikiko tolerantzia egon zen; hainbat funtzionarioen konplizitatearekin egiten zen, hein batean errentagarria zelako, besteak bes-te, behar beharrezko kontsumo produktuekin (ga-riarekin, esaterako, garai horretan merkaturagarria zen gariaren %50 estraperlora bideratu zela kalku-latzen baita) merkataritzan ibiltzen zirenentzat.

Bestalde, preso politikoen bortxazko lana Erre-gimenaren berreraikuntza ekonomikoaren tres-na nagusi bihurtu zen: 1940ko hamarkadaren er-dialdean 100.000 preso baino gehiago aritu ziren bortxazko lanetan, ia soldatarik gabe eta baldintza inhumanoetan. Francoren Gobernuak “zigorraren ordain” gisa aurkeztu zituen lan horiek, baina prak-tikan lan esklaboaren forma sistematikoa ziren. Lan horretaz baliatu ziren, besteak beste, Estatua eta enpresariak, ia doako lan indarra eskuratzeko.

Frankismoaren lehen urteetan emakumeen po-sizio soziala errotik aldatu zen. II. Errepublikan lor-tutako eskubide politiko eta ekonomikoak ezabatu ziren, eta emakumea “ama eta emazte eredugarri” gisa definitu zen. Lan merkatura sartzea ez zen onartzen, eta etxea bihurtu zen haien jarduera-es-parru nagusia. Hala ere, pobrezia orokorrak emaku-me asko lanera behartu zituen, bereziki merkatu beltzean, familia askoren biziraupena bermatzeko bide bakarra baitzen. Eliza katolikoak legitimatu zuen moraltasun sistema hori, obedientzia, apal-tasuna eta isiltasuna balio nagusi gisa ezarriz. Hezkuntza eta komunikabideak zentsuraren bidez kontrolatu ziren, eta emakumeen autonomia eko-nomikoa guztiz mugatu zen.

Estatuaren jardunbidearen elementu nagusie-tako bat ekonomian izan zuen parte hartze zuzena izan zen. Estatua enpresari handi bihurtu zen. Enpresa publikoak aurretik existitzen baziren ere, garai horretan garrantzi handia hartu zuten, eta ikur nagusienetariko bat 1941ean sortu zen

Enpresariak eta langileak erakunde berean nahastuta (sindikatu bertikalean, alegia), “familia bat” zen enpresaren barruan langileek ez zuten ordezkaritza kolektibo bat izateko eskubiderik eta, hala, langileen esplotazioari alfonbra gorria ezarri zitzaion

Instituto Nacional de Industria (INI) izan zen. Ita-liako ereduari (*Istituto per la Ricostruzione Indus-triale*) jarraituz, Estatuak bere gain hartu zituen industria estrategikoak –siderurgia, armagintza, trenbideak eta energia–, autarkia sendotzeko as-moz. Helburua “independentzia ekonomikoa” lor-tzea zen, baina proiektu gehienak errentagarritas-unik gabeak izan ziren. Lan baldintzak gogorrak eta soldatak baxuak izan ziren, eta Estatuaren menpe-ko enpleguak diziplina eta kontrol sozialaren ikur bihurtu ziren. Produktibitatea txikia zen, eta uste-lkeria zabala, eta Espainiak, isolamendu diploma-tikoan, ez zuen nazioarteko dirulaguntzarik jaso-tzen. Frankismoaren lehen urteetan, aurrekontuen %40 interes militarretara bideratu zen. 1940ko ha-markadan INIk eratutako enpresa gehienek Espai-niaren autonomia militarra eta energetikoa ziur-tatzeko helburua zuten (itsasontziak, erregaiak...) Modernizazio teknologikoa atzeratu zen, industria astunaren aldeko apustu zalantzagarriak egin zi-ren eta haietako asko hamarraldi horretan ez ziren errentagarriak izan. Adibide xume bat jartzearren, arbeletik petroleoaren ordezko bat lortzeko neurri-gabeko gastua egin zuten, ondoren bertan behera utzi behar izan zena, eta horrela, etengabeko apustu antzuen adibide zerrenda luzea egin genezake.

Politika horrek oinarrizko ondasunen ekoizpe-na baztertzea ekarri zuen eta herrialdeak po-brezia murgilduta jarraitu zuen. Edonola ere, interbentzionismoa ez zen hor amaitzen; izan ere, hainbat legeren bidez, industriako hainbat sekto-re interes militarren arabera klasifikatzen zi-ren. Hala, “babesa” eskaintzearen truke, hau da,

***Estatuaren jardunbidearen
elementu nagusietako
bat ekonomian izan zuen
parte hartze zuzena izan
zen. Estatua enpresari
handi bihurtu zen.***

laguntza, fabore eta pribilegiozko tratuaren truke, Estatuak industria sektore estrategikoen gaineko kontrol handiagoa eskuratu zuen.

Logika horrek langileen oinarritzko beharri-
nak baztertzea zekarren: ez ziren lehenesten ez
nekazaritzako produktuak (elikagai nagusien eta
xaboiaren errazionamendu kartillak baldintzatu-
ta), ez kontsumo ondasunak, ez lehengaiak, ezta
energia ere. Bereziki azpimarragarria da elektrizi-

tatearen kasua, industriarako energia merkea ber-
matzeko helburuarekin, elektrizitatearen prezioa
tasatu zuen Estatuak. Erreakzio gisa, XXI. mendeko
elektrizitate konpainien jarreratik ez oso urrun, or-
duko elektrizitate konpainiek inbertsioa murriztu
edo gelditu egin zuten. Guztien beharrak asetzetik
urrun, 1944tik aurrera eta 1950eko hamarkadaren
erdialdera arte, elektrizitate etendurak oso ohikoak
bihurtu ziren.

Elikadurari dagokionez, azpielikaduraz hitz egin
beharko genuke. Espainiako nekazaritzak ez zuen
biztanleria osoa ondo elikatzeko gaitasunik: kali-
tate eskaseko elikagaiak, gosea eta horiekin lotu-
tako gaixotasunak ugaritu egin ziren. Historialari
ekonomikoen artean zerealaren ekoizpena azter-
tu da nagusiki, gosete garaian oinarritzko elikagai
bihurtu baitzen. Estatuak, Servicio Nacional del
Trigo delakoarekin (SNT, 1937an sortua), merkatua
interbenitu eta hainbat neurri jarri zituen mar-
txan: gariaren prezioa tasatu zuen eta merkaturatu
zitekeen zereal guztia erosten hasi zen, gero berak

saltzeko irin fabrikei. Neurri horien isla izan zen
ogi beltzaren fenomenoak, hau da, kalitate txarre-
koa, interbentzio maila altuaren aurrean ogi zuria
egiteko irina merkatu beltzerako gordetzen baitzen.
Beranduago, SNTek garitik haratago beste produktu
batzuen erosketa monopolizatzeko jauzia egin zuen,
merkatua orokorrean kontrolatzeko.

Nekazaritzan egindako inbertsioa hutsaren hu-
rrera izan zen. Urtegien eraikuntzen hasieraz hitz
egin genezake, baina oraindik ez zeuden martxan
eta ez zen beste neurri eraginkorrik hartu. Lur-ja-
beak ere nekazarien soldata baxuez probestu ziren,
lurra berreskuratu zituzten askok ordurarteko
maizterrak bota eta jornalariak kontratatu zituz-
ten, eta ez zuten mekanizazio, ongarri edo bestelako
aurrerapenetan inbertitu; produktibitatea maldan
behera zihoan.

Gobernu frankistak bideak ireki zizkion klase
ertainaren aberaste progresibo bati: lurren berres-
kurapena, prezioen egonkortzea eta estraperloa era-
biltzeko aukera. Aliantza horretatik indartu ziren


***Autarkia-garaia autarkia
errealetik urrun gelditu zen.
Estatua sorgin-gurpilean
murgildu zen eta, ironikoki,
politika ekonomikoak
aurrera eramateko
finantzazio ezintasuna
izan zen porrotaren
oinarrietako bat.***

iparraldeko jabe txiki zein landa enpresari handiak.
Alabaina, irabazi horiek ez ziren musutruk, Estatuak
probetxua ateratzen zuen; izan ere, irabazi horiek
landako aurrezki kutxetara bideratzera behartzen
zituen, eta aurrezki horiek inbertsio industrialaren
finantziazio izan ziren hurrengo hamarkadan.

Estatuaren gastuaren hazkundea, hasieran, bar-
ne-zorra handitzearen kontura egin zen eta, ondo-
ren, inflazioaren bitartez (besteak beste, bankuei
Estatuaren zorra erostea ahalbidetu zieten, eta on-
doren horiek zor hori Espainiako Bankuan diru liki-
doagatik aldatzen zuten; horrek, noski, inflazioa are
eta gehiago handitu zuen). Autarkia-garaia autarkia
errealetik urrun gelditu zen. Estatua sorgin-gurpi-
lean murgildu zen eta, ironikoki, politika ekonomi-
koak aurrera eramateko finantzazio ezintasuna izan
zen porrotaren oinarrietako bat.

1950. hamarkada hasieran, Bigarren Mundu Ge-
rraren ondoren eta NATOren sorreratik urtebete-
ra, mundua bi bloke politiko-ideologikotan banatuta
zegoen eta Espainiak egoki bilatu zuen testuinguru
berri horretan bere tokia. Herrialde nazi eta faxis-
ten lagun izatetik, antikomunismoaren babestoki
izatara igaro zen, eta Estatu Batuek begi onez ikusi

***Hala, politika interbentzionistaren
pean, “babesa” eskaintzearen
truke, hau da, laguntza, fabore eta
pribilegiozko tratuaren truke, Estatuak
industria sektore estrategikoen gaineko
kontrol handiagoa eskuratu zuen***



Landa-eremutik hirietarako exodoaren aurrean etxebizitza- eta hiri-planifikaziorik ez egoteak txabolismoa bihurtu zuen familia askoren “larrialdi-irtenbidea”

zuten bilakaera hori. Hala iritsi zen “Madrilgo Itunak” deritzona, Espainia eta Estatu Batuen arteko akordioa, alegia. Espainian base militar egonkorrak ezartzearen truke, Estatu Batuek dirulaguntzak eman zizkion Espainiari, 500 milio dolar baino gehiago, eta dirulaguntza horiek hurrengo urteetan ere jarraitu zuten, 1959. urtera arte. Dirulaguntza horiek baliagarriak izan ziren autarkia garaitik Estatuak arrastaka zeraman atzeraldiari aurre egiteko, teknologia berria, lehengai estrategikoak edota makineria inportatzeko erabili baitzen diru hori. Itomenari aurre egin eta berreskurapen ekonomikoari ekin zitzaion 1959. urteko Egonkortze Planaren bitartez.

Politika ekonomiko autarkiko eta interbentzionista mantendu bazen ere, kontrola arindu egin zuen Estatuak. Irekiera erlatibo hori nekazaritzan adierazgarria izan zen, SNTek hainbat produkturen kontrola izateari utzi baitzion, eta horrek hein batean zerealen ekoizpena handitzea bultzatu zuen. Hamarkada horretako ureztatze politikak garrantzitsuak izan ziren nekazaritzarako. Apustu nagusiena urtegien eraikuntza izan zen; ohiko irudi bilakatu zen Franco horietako bat inauguratzen ikustea. Urtegien edukiera 3.600 milioi m³-koa izatetik (1940), 36.900 milioi m³-koa izatera igaro zen (1970), eta gehienak 1950. hamarkadatik aurrera eraiki ziren. Nekazaritzaren berreskurapenak azpielikaduratik ateratzeko baldintzak ezarri zituen poliki-poliki. Errazionamenduarekin bukatu zen, eta elikadura eta elektrizitate kontsumoaren gaineko kontrolak ahultzen joan ziren (kontuan hartu kartillapean egon zirela 1950. hamarkada hasieran oraindik hornigai nagusiak, ogia, esaterako). Lur-jabeentzat, 1950eko hamarraldia nekazaritza tradizionalaren urrezko aroa izan zela defendatzen dute zenbait historialarik: gizarte bake inposatua, Estatuaren protekzionismoa zerealgintzan, eta mekanizazioaren eta ongarrien erabileraren normalizazioa izan zituzten eskura. Eta nekazarien soldata baxu mantenduz, nekazaritza-sektorea errentagarriagoa bilakatu zen.

Hala eta guztiz ere, autarkia garaiko politiken ondorioz, industria Espainiako sektore nagusia bilakatu zen nekazaritzaren gainetik. 1950eko hamarraldian, INIk bere hasierako militarismoa alde

batera utzi bazuen ere, energiaren sektorean kontzentratu zuen jarduna, batez ere hidrokarburoetan (Encaso, Repesa) eta elektrizitatean (Endesa, ENHER), energia-hornikuntzako arazoak arintzeko. Aldi berean, sektore metalurgikoa handitu zuen (Ensidesa sortuz) eta autogintzaren industria bultzatu (Seat, ENASA). Espainiako industrializazioa “heldutasunaren” atarian gelditu zen, kontsumo- eta ekipondasunen sektoreen arteko oreka gertu batean. Inportazioa ordeztzeko helburuarekin aurrera eramandako industrializazio ereduaren adibidea zen.

Estatua gastua handitzen hasi zen halaber, ekonomia eta alor sozialera bideratzeko, oraindik miseria nagusi zen arren. Muturreko bizi baldintzen adibide ziren garai hartan hirien inguruan hazten joan ziren etxebizitza arazoak eta txabolismoaren fenomenoak. 1939 eta 1954 artean, Espainian etxebizitza sozialen eraikuntza oso txikia izan zen. Estatuko erakunde nagusia zen Obra Sindical del Hogar-ek (OSH) apenas eraiki zituen 10.000 etxebizitza Espainia osoan; hori, beharrianen aldean, kopuru hutsala da.

Bien bitartean, hirietako populazioa azkar hazten ari zen. 1940 eta 1960 artean Espainiako biztanleria zazpi milioi pertsonatan handitu zen, eta, aldi berean, lau milioitik gora pertsonak landa-eremua utzi zuten hirietara joateko. Etxebizitza- eta hiri-planifikaziorik ez egoteak txabolismoa bihurtu zuen familia askoren “larrialdi-irtenbidea”.

1950eko eta 1960ko hamarkadetako landa-exodoa XX. mendean Espainian gertatutako prozesu sozial handienetako bat izan zen. 1950 eta 1975 artean, sei milioitik gora pertsonak probintziaz aldatu zuten lana bilatzeko. Aldi horretan, industria-hiriek inoizko hazkunderik handienak bizi izan zituzten: Bilbo, esaterako, 1940an 195.000 biztanle izatetik 1970ean 410.000tik gora izatera izatera igaro zen (hiri-nukleoa kontuan hartuta), eta Bilbo Handiak 750.000 biztanle baino gehiago izan zituen. Hazkunde hori, ordea, askoz handiagoa izan zen etxebizitza erregulatuaren eraikuntza-gaitasuna baino.

Estatuak txabolismoa baimendu zuen, funtzio ekonomiko garrantzitsua betetzen zuelako, industrietatik gertu lan indar merkea bermatzen baitzen.

Irudiaren iturria: *La Vanguardia*

Bilboren adibidearekin jarraituz, 1957an 7.200 txabola zeuden gutxienez.

1950eko hamarkadaren amaiera mugarri izan zen frankismoaren historian. Hamarkada luzeko isolamendu eta autarkia politiken emaitzak agerian utzita, Erregimenak ezinbestean onartu behar izan zuen bere eredia agortuta zegoela: inflazio altuak, ekoizpen eskasak eta baliabide ekonomikoen urritasunak erakutsi zuten sistema itxian aldaketak egin behar zirela. Espainiako ekonomiaren aldaketa ezinbestekoa zen, eta nazioarteko testuinguru berriak —Gerra Hotzaren dinamika, Estatu Batuen interes estrategikoa eta nazioarteko merkatuen irekiera progresiboa— aukera berri baten atea ireki zion Erregimenari. Hala, hazkunde ekonomikoak oraindik zituen mugak eta barne tentsioen presioak

(miseria orokortua zen eta gizarte gatazkak azaleratzen hasi ziren: 1951 eta 1956ko grebak, ETaren sorrera, ikasle mugimenduak...) kontuan hartuta, erabaki zuten politika ekonomikoa aldatzea eta liberalizazio prozesu baten bidez sistema egonkortzen saiatzea.

Egonkortze Planaren sorrerak markatu zuen norabide berria. Helburua argia zen: autarkia ekonomikoaren porrotari aurre egitea eta Espainia atzerriko kapital eta merkatuetara irekitzea, kontrol politikoa galdu gabe. Horretarako, Erregimenak teknokraten talde bati eman zion ardura ekonomikoa; gehienak Opus Deiko kideak ziren, eta haien ikuspegia merkatuaren eraginkortasuna eta moral katolikoa uztartzeko saiakeran oinarritu zen. Francok, oraindik botere osoa mantenduta,



eguneroko kudeaketa teknokraten esku utzi zuen, eta teknokrata horiek liberalizazio ekonomikoaren lehen faseak bideratu zituzten. Egonkortze Planak hiru zutabe nagusi izan zituen: moneta egonkortzea, gastu publikoa murriztea eta atzerriko inbertsioa sustatzea. 1960tik aurrera, ekonomiak hazkunde azkarra izan zuen, barne produktu gordina urte askoan %7 inguruan hazi baitzen. Herrialdea modernizazio prozesu batean murgildu zen eta soldata baxuek bere horretan jarraitzeak, lan diziplina zorrotzagoek eta sindikatu askatasunik ezak osatu zuten “mirari ekonomikoaren” oinarria. Plana Nazioarteko Diru Funttsaren eta Ekonomia Lankidetzarako Europako Erakundearen gomendioarekin egin zen, eta ondoren laguntza gehienak haien eskutik eta AEBko banka pribatutik jaso ziren.

Industrializazio bizkor horrek aldaketa sozial sakonak ekarri zituen. Automobilgintza, siderurgia eta eraikuntzaren sektoreek izan zuten hazkunderik handiena, eta milaka langilek aurkitu zuten bertan lana. Aldi berean, landa-eremuetako pobreziak eta nekazaritzaren mekanizazioak milioika pertsona hirietara emigratzera bultzatu zituen. Espainiako barne-migrazioak dimentsio erraldoia hartu zuen: 1950 eta 1975 artean zazpi milioi pertsona inguruk landatik hirira egin zuten salto, eta horrek hiri-egitura erabat aldatu zuen. Landa-gizarte tradizionala desegin egin zen, eta hiri industrializatueta klase ertain berri bat agertu zen, langile masa zabal baten esplotazioaren kontura. Auzo berri proletarioak sortu ziren, azpiegitura eskas eta bizi-baldintza zailak zituztenak, baina bertan eraiki ziren langile antolakuntza berpizteko aukerak.

1950eko hamarkadaren amaieran, Gasteiz bihurtu zen industrializazio berriaren esperimendu paradigmatikoa. Arabako Garapen Industrialerako Plana (1957) izeneko ekimenak ez zuen garapen ekonomikoaren ikuspegitik berrikuntza handirik ekarri, baina frankismoaren egitura ekonomikoaren erreproduktzio zehatza izan zen.

Gamarra, Ali eta Betoño inguruko industrialdeak ez ziren merkatuaren dinamika naturalaren ondorioz sortu; Estatuaren eta banku pribatuen arteko sare korporatiboaren emaitza izan ziren, tokiko elite ekonomiko eta erlijiosoen babespean. Goi burgesiak, elizgizon garrantzitsuek eta udal agintari frankistek osatzen zuten interesen aliantza horrek industriaren garapena baldintzatu zuen eta, modernizazioaren diskurtsoaren atzean, klientelismoa eta ustelkeria eguneroko praktika bihurtu ziren. Enpresa askok –Michelin, MEVOSA, Forjas Alavesas– lur

Landa-gizarte tradizionala desegin egin zen, eta hiri industrializatueta klase ertain berri bat agertu zen, langile masa zabal baten esplotazioaren kontura. Auzo berri proletarioak sortu ziren, azpiegitura eskas eta bizi-baldintza zailak zituztenak, baina bertan eraiki ziren langile antolakuntza berpizteko aukerak.

merkeak eta zerga salbuespenak lortu zituzten kontaktu pertsonal eta politikoen bidez.

Horren guztiaren atzean, frankismoaren logika sozial eta politikoa mantendu zen: lanaren diziplina zorrotza, poliziaren presentzia iraunkorra eta sindikatu bertikalaren ordezkarien kontrola langileen batzordeetan. Gasteizko industrializazioa izan zen frankismoaren modernizazio teknokratiakoaren adierazpenik garbiena: itxuraz aurrerakoia eta efizientziaz jantzia, baina oinarrian kontrol sozial zaharrean eta botere ekonomikoaren sare korporatiboan errota. Garapen ekonomikoaren diskurtsoaren azpian, gizartearen egitura autoritarioak iraun zuen, eta Euskal Herriko industrializazio prozesuak erakutsi zuen nola modernizazioa eta zapalkuntza soziala eskutik joan ziren diktadura garaian.

Egonkortze Planaren testuinguruan (1959-1961) hazkunde ekonomikoa ekoizpen kostuak murriztu eta produktibitatea handituz gauzatu zen; horretarako, besteak beste, lan-intentsitatea handitu zen eta lan baldintzak okertu ziren –soldatak jaitsez (%40, kasu batzuetan) edo aparteko orduen aukera ezabatuz–. 1961ko Lan Harremanen Legeak kalera-tzeak erraztu zituen, eta langile askok bigarren lanak behar izan zituzten, askotan lege kanpokoak, familiaren oinarritzko beharrak asetzeko. Aldi berean, soldatak osatze aldera, nabarmen handitu zen



emakumeen parte-hartzea ekonomian, nahiz eta askotan ezkutuan gelditu: joskintzan edo garbiketean, lanaldi luze eta ordainsari eskasekin. Francoren erregimenak moralki gaitzetsi zuen emakumearen lan publikoa, baina sistema ekonomikoak berak behartu zuen emakumea merkatu paraleloetan sartzera; hala, emakumeen lana biziraupenerako beharrezko pieza bilakatu zen.

Gamarra, Ali eta Betoño inguruko industrialdeak ez ziren merkatuaren dinamika naturalaren ondorioz sortu; Estatuaren eta banku pribatuen arteko sare korporatiboaren emaitza izan ziren, tokiko elite ekonomiko eta erlijiosoen babespean

Sindikatu bertikala, oraindik ere, lanaren kudeaketa ofizialaren tresna zen, baina 1960ko hamarkadaren erdialdean bere eraginkortasuna eta zilegitasuna ahultzen hasi ziren. Langile gazteen belaunaldi berriak ez zuen sinesten “elkarlan bertikalaren” diskurtsoan, eta fabriketan estrategia sotilak erabiltzen hasi ziren, hala nola greba isilak, lanuzteak eta produktibitate txikia. Estatuak grebak legez kanpo mantentzen zituen, baina isilpeko mobilizazioak gero eta ohikoago bihurtu ziren, eta langileen desobedientzia-ekintzak Erregimenaren oinarri sozialak higatzen hasi ziren. Hala ere, kontrol politikoa zorrotza zen: atxilotetak, kaleratzeak eta disidentzia isilarazteko neurriak etengabeak ziren.

1960ko hamarkada garai berri baten hasiera izan zen Espainian. 1959ko Egonkortze Planarekin, Francoren erregimenak autarkia zorrotzari uko egin, eta nazioarteko ekonomiara ireki zen. Erabaki hark abiarazi zuen desarrollismoaren garaia, non hazkunde ekonomiko ikusgarria eta modernizazio azkarra bateratu ziren, desoreka sozialak handitzearekin batera. Hurrengo bi hamarkadek Espainia XX. mendeko Europako industrializazio berantiarren adibide klasiko bihurtu zuten. 1960tik 1975era arte, Espainiako ekonomia hirukoiztu egin zen eta *per capita* errenta bikoiztu baino gehiago egin zen. Garapenaren abiadura bortitza izan zen, eta Espainia Mendebaldeko Europako herrialdeen garapen

Langile gazteen belaunaldi berriak ez zuen sinesten “elkarlan bertikalaren” diskurtsoan

mailara gerturatu zen. Jada ez zen garapen-bidean zegoen edozein herrialde; izan ere, bere industrializazio berantiarra azkartu zuen nazioarteko kapitalaren, eskulan merke eta ugariaren eta kontsumo masiboaren sakabanatze progresiboaren bidez.

Hazkundearen motorrik indartsuena industria izan zen. Gobernuak 1964tik aurrera abiarazitako garapen plan nazionalek norabidea planifikatu zuten. Helburua argia zen: industria astun, kimiko eta mekanikoan oinarritutako ekonomiara igarotzea.

Polo industrialak sortu ziren Burgosen, Huelvan, Vigon, Zaragozan, Sevillan eta Galiziako eta Andaluziako beste puntu batzuetan. Industria-guneen sare hori ez zen ausazko estrategia: Estatuak fiskalki babestu zituen sektore estratetikokoak, eta, aldi berean, multinazionalak —bereziki automobilgintzakoe— produkzioa Espainian kokatzeko aukera ikusi zuten: eskulan merkea, lurraren prezio baxua eta merkatu asegabea. Renault, Chrysler, Ford eta Seat bera modernizazioaren ikono bihurtu ziren. 1950eko hamarkadaren amaieratik aurrera, automobilgintza bihurtu zen ekonomiaren sinbolo berria. Seaten sorrera (Sociedad Española de Automóviles de Turismo) izan zen garai hartako proiektu industrialik indartsuena. Arrakasta lortzeko Estatuaren dirulaguntzak, atzerriko patenteen erabilera (FIATen bidez) eta kontrol burokratikoaren malgutasuna izan ziren giltza. Bartzelonako eta haren inguruko industrialdeetan milaka langile sartu ziren lantegietan, eta lehen greba eta lanuzte koordinatuak ere han sortu ziren 1960ko hamarkadaren hasieran. Seatek eta antzeko enpresek lanaren diziplina zorrotza ezarri zuten, baina, era berean, langile-mugimendu berrien laborategi bilakatu ziren, non obediencia-aren eta duintasunaren arteko tentsioa gero eta agerikoagoa zen.

Eraikuntza-sektorearen hazkundeak ere eztanda egin zuen, hiritartze prozesu azkarraren eta turismoaren eskari ikaragarriaren ondorioz. Hamarkada gutxiren buruan, Espainiako hiri handiak eraikuntza-kontsumoaren erakusleho bihurtu ziren: auzo berriak blokeka hazten ziren. Urbanizazio bizkorrak eta kalitate txarrekoak azpiegitura-gabezia handiak ekarri zituen. Estatuak ez zuen baliabiderik herriarren oinarritzako premiak asetzeko, eta horrek auzoetako bizilagunak autogestiora bultzatu zituen.

Hornidura-sareak, ur eta argi konexioak, eta eskola zein elkarteen sorrerak askotan langile sareen antolakuntza bidez gauzatu ziren.

Energia eta eraikuntza sektoreetan garatu zen oligopolio sistema izan zen frankismoaren ekonomia-aren zutabe ilunetako bat. Petrolioaren eta elektrizitatearen banaketa enpresa eta familia zehatz batzuen esku utzi zen: CAMPSAk, Iberdue-rok edo Hidroeléctrica Españolak monopolio pribilegioak jaso zituzten, beste enpresa batzuekin batera, Erregimenarekiko leialtasunaren truke. Eliza, armada eta elite frankistak elkarri lotzen zituen interes-sare horrek klientelismoaren kultura finkatu zuen. Eraikuntza-sektorean, gerraosteko suntsipenak sortutako premiek ustelkeria orokortua ekarri zuten: etxebizitza sozialaren planak eta azpiegitura lan handiak “emakida zuzena” sistemaren bidez esleitzen ziren, lehiarik gabe, eta kontratu publikoen atzean sarritan ordain politikoak edo konplizitate ekonomikoak egoten ziren.

Automobilgintzaren gorakadak eta INIren bidezko inbertsio publikoak aberastasuna sortu zuten, baina aldi berean klientelismo teknokratikoa ere areagotu zen. Estatuaren goi-kargu askok konpainia pribatuen kontseilueta parte hartzen zuten, eta baliabide publikoak interes pribatueta bideratzen zituzten. Enpresari frankista asko merkatu librearen diskurtsoaz baliatu ziren eta Estatuarekin elkarlan estua egin zuten. Horrela sortu zen hamarkadetan iraun duen Espainiako kapitalismoa: Estatuaren babesean oinarritutako ekonomia pribatuaren eta merkatuaren irudi faltsuaren arteko nahasketa. Frankismoan ustelkeria ez zen istripua, baizik eta sistemaren logika beraren adierazpena. Klientelismo politiko eta ekonomikoak egitura instituzional osoa zeharkatzen zuen. Enpresa handiak Estatuaren babespean aberasten ziren, eta trukean leialtasun

Estatuak grebak legez kanpo mantentzen zituen, baina isilpeko mobilizazioak gero eta ohikoago bihurtu ziren, eta langileen desobediencia-ekintzak Erregimenaren oinarri sozialak higatzen hasi ziren

Bartzelonako eta haren inguruko industrialdeetan milaka langile sartu ziren lantegietan, eta lehen greba eta lanuzte koordinatuak ere han sortu ziren 1960ko hamarkadaren hasieran. Seatek eta antzeko enpresek lanaren diziplina zorrotza ezarri zuten, baina, era berean, langile-mugimendu berrien laborategi bilakatu ziren.

politikoa eskaintzen zuten. “Konfiantzazko harremanak” bihurtu ziren kontratazio publikoaren eta laguntza ekonomikoen baldintza.

Nekazaritza Espainiako ekonomia-egituraren zutabe historikoa izan bazen ere, 1960ko hamarkadan errotik aldatu zen. Mekanizazioak, ureztapenaren zabalkundeak, ongarrien masibotasunak eta hazi hibridoaren erabilerak produktibitatea igo zuten, baina modernizazio horrek murrizketa ikaragarria ekarri zuen eskulanean. Hori guztia “iraultza berdea” izenez ezagutu zen. Emaizta dramatikoak izan zen landa-eremu askotan: milioika pertsona hirietara abiatu ziren lan bila; 1960 eta 1975 artean bi milioi lagun baino gehiagok utzi zuten landa-mundua. Prozesu horrek “Espainia hutsa” izeneko fenomenoaren lehen oinarriak jarri zituen. Exodo hark industriaren hazkundea elikatu zuen eskulan merkea eskainiz, baina hiritartze bortitz eta kaotikoa ere ekarri zuen: auzo pobreak, etxebizitza falta eta azpiegitura ahulak.

Egonkortze Planak merkataritza eta merkatuaren mugimendua zabaldu zituen. Nahiz eta Espainiak makina eta petrolio asko inportatu behar izan, esportazioak ere gora egin zuten: altzairua, ehungintza, zapatak eta itsasontziak, batez ere. Sostengu nagusiak hiru izan ziren:

1. Turismoaren hedapena: 1960an hiru milioi turista; 1975ean, 30 milioi. Mediterraneoko kostaldeak, aurrez arrantzaleen eta nekazarien lurralde izandakoa, bigarren etxebizitzaz, hotelez eta azpiegitura erraldoiz betetako eremu turistiko bilakatu

zen. Diru-sarrera handiak ekarri zituen, baina baita ingurumenaren suntsipena ere.

2. Emigrazioaren diru-bidalketak: langabezia-aren areagotzeak 1960ko hamarkada osoan zehar emigrazio masiboa eragin zuen, eta bereziki Europako herrialde industrializatuak izan ziren helmuga. 1970ko hamarkada hasierara arte, gutxi gorabehera, Alemaniara, Suitzara, Belgikara eta Frantziara joandako ia bi milioi espainiarrek bidalitako dirua funtsezkoa izan zen. Familiei laguntzeaz gain, Estatuari dibisa freskoa ekartzen zioten; askotan, industriaren finantzaketa horri esker ordaindu zen.

3. Inbertsio atzerritarrak: multinazionalen presentzia masiboa 1960ko hamarkadan orokortu zen. Teknologia modernoa ekarri zuten, baina Espainiak mendekotasun tekniko eta estratetikoa ere garatu zuen.

Prezioak etengabe igo ziren, garaiko Mendebaldeko beste herrialde askotan baino gehiago. Azpiegitura publikoak eskasak ziren: osasungintza, hezkuntza eta babes soziala atzeratuak zeuden. Espainiako gizartea kontsumoaren aro batera igaro zen, baina ongizate estatuaren oinarriak ia ez ziren existitzen. Gainera, lan gatazkak handitzen hasi ziren. 1960ko hamarkadaren erdialdean, langile mugimendua berriro aktibatu zen, nahiz eta oraindik ilegala izan. Comisiones Obreras mugimenduaren sorrera izan zen adierazgarriena: langile mugimendu kristauaren eta alderdi komunisten arteko aliantza baten ondorioz jaio zen, eta fabriketan asanblada-sistemaren bidez antolatu zen.

Frankismoan ustelkeria ez zen istripua, baizik eta sistemaren logika beraren adierazpena. Klientelismo politiko eta ekonomikoak egitura instituzional osoa zeharkatzen zuen. Enpresa handiak Estatuaren babespean aberasten ziren, eta trukean leialtasun politikoa eskaintzen zuten.

Lanaren bidezko obediencia zena, pixkanaka, borrokarako arrazoi bihurtu zen, eta hori izan zen frankismoaren egonkortasunaren lehen haustura soziala

Ordezkaritza hautatuak, lan baldintzen negoziazio informalak eta greba orokorren prestaketak ohiko bihurtu ziren. UGT eta CNT erakunde historikoak oraindik legez kanpo zeuden, beste erakunde batzuekin batera, baina haien kide askok parte hartu zuten CCOOren egituretan. Asturias eta Bizkaiko 1962ko grebak mugarri bihurtu ziren: milaka langilek parte hartu zuten eta Erregimenak ezin izan zuen guztia isilarazi. Lanaren bidezko obediencia zena, pixkanaka, borrokarako arrazoi bihurtu zen, eta hori izan zen frankismoaren egonkortasunaren lehen haustura soziala.

Desarrollismoa Espainiaren historiako modernizazio azkarrenetakoa bat izan zen. Herrialdea industrializatu, hiritartu, nazioartekotu eta kontsumo gizarte moderno bihurtu zuen. Baina prozesuak itzalak ere utzi zituen: mendekotasun teknologikoa, energia-arintasunik ez izatea, ongizate estatuaren gabezia, lurralde desorekak eta industria txiki ahulak. 1973ko petrolioaren krisiak eta Carrero Blancoen heriotzak ereduaren mugak eta barne tentsioak azaleratu zituen, eta 1970eko hamarkadaren amaieran, Francoren heriotzarekin batera, Espainia eraldaketa politiko eta ekonomiko sakon baterantz abiatu zen, oraindik desarrollismoaren arrastoak sorbaldetan zituela.

Erregimen frankistak ezarri zuen bultzada ekonomikoak Espainiako kapitalismoaren egitura sendotu zuen, eta harreman publiko-pribatuen antolaketa jakin bat normalizatu zuen. Industria-hazkundera, atzerriko inbertsioaren gorakada eta obra publiko handiak izan ziren garai hartako ezaugarri nagusiak, eta horien inguruan sortu ziren sare politiko eta ekonomikoek eragin nabarmena izan zuten ondorengo hamarkadetako garapenean.


Trantsizioak marko politiko berria ekarri bazuen ere, hainbat dinamika historikok denboran zehar jarraitutasuna izan zutela azpimarratzen dute ikerketek. Administrazioaren eta sektore ekonomiko jakin batzuen arteko loturen eboluzioan, kontratazio publikoaren konfigurazioan edo eragin-sareen presentzian, desarrollismoaren garaiko egiturek nola baiteko oihartzuna izan dute. Horrelaxe erakusten du erreportaje honek ere: iragana ez da desagertu, forma berrietan txertatuta iraun du. ●



FRANKISMOA ETA HIZKUNTZAK

Testua — **Leire Laborda**

Irudia — **Zoe Martikorena**



Francoren diktadurak gaztelera ez beste hizkuntzak jazarri zituela egia ezaguna da. Gutxiago hitz egin izan da, ordea, frankisten barruan egon zen erreionalismoaz. Frankismoaren eta falangismoaren oinarrian dagoen espainiar nazionalismoak nazio zapalduen hizkuntza gutxituak erasotu zituen. Interesgarria zaigu, halaber, diktadurako azken garaietan hizkuntzekiko jarrera nola eta zergatik aldatu zen ulertzea. Lerro hauetan, frankismo garaiko hizkuntza politika aztertuko dugu, bereziki, euskarari eta katalanari begiratuta.

FRANKISMOA BAINO LEHEN

Frankismo garaiko hizkuntza politikan sartu aurretik, kontuan izan beharrekoa da hizkuntza gutxituen aurkako neurriak ez zirela frankismoarekin hasi. Euskararen kasua hartuta, historia aurrekapitalistan, euskararen aurkako hainbat neurriren adibideak dauzkagu, askotariko arrazoiak direla eta: 1239an Ojacastron (Errioxan) eta 1349an Huescan ezarri ziren euskara hitz egiteko debekuak, esaterako.

Dena den, kapitalismoaren sorrerarekin batera nazio-estatu modernoak jaio ahala, kapitala metatzeko merkatu eta estatu nazional handi bakarra inposatzeko prozesua azkartu zen, nazio zapalduen hizkuntzak zokoratzea barne: 1776an Arandako kondeak euskarazko liburuak debekatu izana, 1857an Moyano Legeak ezarritako ikasgeletan gaztelera erabiltzeko agindua, 1862an (gaurdaino indarrean dagoena) dokumentu publiko guztiak gaztelera idazteko derrigortasuna, 1867an Isabel II.ak agindutako euskarazko antzezlanen debekua, eta abar.

Frankismoa hasi baino urte batzuk lehenago, Bigarren Errepublika garaian, idatzi zen Espainiako Konstituzio berria (1931an); bertan, tokiko hizkuntzak hitz egiteko eta irakasteko eskubidea aitortzen zen, baina gaztelania izanik Espainiako Estatuko hizkuntza nagusia:

Gaztelania Errepublikako hizkuntza ofiziala da. Espainiar orok du hura jakiteko betebeharra eta erabiltzeko eskubidea, Estatuko legeek probintzietako edo eskualdeetako hizkuntzei aitortzen dizkieten eskubideei kalterik egin gabe. Lege berezitueta zehaztu ezean, inor ezingo da behartu tokiko ezein hizkuntza ikasi edo erabiltzera. (Konstituzioko 4. artikulua)

Hezkuntza arloari dagokionez zehaztapen hauek egiten zituen:

Autonomia-erkidegoek beren hizkuntzetan antola dezakete irakaskuntza, estatutuetan ematen zaizkien ahalmenen arabera. Gaztelania nahitaez ikasi behar

da, eta autonomia-erkidegoetako lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxe guztietan erabiliko da. Estatuak gradu guztietako irakaskuntza-erakundeak mantendu edo sortu ahal izango ditu haietan, Errepublikako hizkuntza ofizialean. (Konstituzioko 50. artikulua)

Bestalde, garai horretakoak dira eskualdeen autonomia estatutuen ezagupenak, Katalunian 1932an eta Euskal Herrian 1936an. 1936an Galiziako autonomia estatutua idatzi zen, baina, ez zen aplikatua izatera iritsi, hiru aste geroago lehertu baitzen Gerra Zibila. Galizia nazionalen eskuetan erori, eta estatutua guztiz baztertuta gelditu zen. 1939an, frankisten garaipenak Errepublika abolitu zuen eta Konstituzioak onartutako autonomia estatutuak bertan behera geratu ziren.

FRANKISMOKO LEHEN URTEAK

Falange Española alderdia nazionalismo espainolaren zimenduak eratu nahian zebilen, eta kasu askotan, tokiko hizkuntzen eta erresistentzia errepublikanoarekin lotuta zetozen tokiko kulturen aurka jo zuen modu bortitzean, separatismoa arrazoitzat harturik. Falangearen 1934ko programak argi adierazten du separatismoaren aurkako gurutza: “edozein separatismo delitu bat da, eta inoiz ez du gu barkatuko”.

Hala ere, deigarria da Falangeak, Katalunia konkistatzera zihoanean, katalanez zeuzkala prest esku-orriak eta propaganda, autoritate militarrek banatzen utzi ez zizkienak. Ramiro Ledesma berak, faxismoaren teoriko nagusienetakoa izan zenak, kultura eta katolizismoa jartzen zituen nazio espainolaren oinarri eta zutabe gisa, ez arraza, ezta hizkuntza ere. Izan ere, frankisten artean, batzuek eskualde bakoitzeko hizkuntzak eta kulturak harro egoteke zerbait bezala ulertzen zituzten, Espainiaren berezko aberastasun bezala, betiere modu folklorikoan. Bartzelonako Mateu i Pla alkate frankistak honela definitzen ditu 1939an: “Ohitura eta usadio sakratuekiko atxikimendu zintzo eta nobleak, espainiar abertzaleatasunaren funtsa izan zirenak beti”. Gerra Zibila amaitzean, Serrano Súñer politikari frankistak honela zioen: “Hizkuntza katalana? Zergatik ez? Katalana separatismoaren tresna bada, horren aurka borrokatuko gara. Demagun gaztelania –nahiz eta hori ezin den gertatu– noizbait Espainiaren handitasunaren kontrako faktorea izatera iristen dela. Ez al genioke aurre egin beharko? Katalana Espainiaren handitasunaren osagaia bada, zergatik ez errespetatu?”.

Badirudi, hortaz, hasiera batean, Falangearen baitan bazegoela ikuspegi bat eskualde bakoitzeko hizkuntza eta kulturak espainoltasunaren barrenean

ulertu eta aitortzen zituena. Ordea, beste ikuspegiak ere indar handia zeukan. Azken horren isla izan daitezke Donostiako *Domingo* egunkarian 1937an argitaratutako adierazpen hauek: “Hemen (Euskadi) eta Mediterraneoko itsasertzean (...) euskalkiak izurrite baten baziloak balira bezala lantzen ziren, eta izurrite horrekin, betidanik, gure nazio-zentzu sendoa kutsatzeko asmoa zuten. Morbo separatistari ondo zihoakion euskalkien giroa. (...) Zalantzarik gabe, bere birulentzia aprobeixatuagatik, espainol onaren ezein belarrik ezin du Espainiako dialektoetan esandako hitzik agindu tinpano-ikararik gabe, hitzok entzuten dituen horren nazionalismoaren aurkako erasotzat joz, jakina, bere borondatearen aurka. (...) Hizkuntza bakarra Espainia bakarrean”.

Franco bera modu honetan mintzo zen: “Espainia kontzeptu totalitario zabal batean antolatzen da, bere batasuna eta jarraitutasuna bermatuko duten erakunde nazionalen bitartez. Eskualde bakoitzaren izaera errespetatu egingo da, baina batasun nazionalari kalterik egin gabe, erabateko batasuna nahi baitugu, hizkuntza bakarrarekin, gaztelaniarekin, eta nortasun bakarrarekin, espainiarrarekin”. Hauxe zen Espainiako lema ezaguna: “Una, Grande y Libre”. Eta honelako mezuak zabaltzen ziren: “Kamarada! Judaismoa, masoneria, marxismoa eta separatismoa jartzeko betebeharra duzu. Suntsitu eta erre beren egunkariak, beren liburuak, beren aldizkariak, beren propaganda.”


Badirudi, hasiera batean, Falangearen baitan bazegoela ikuspegi bat eskualde bakoitzeko hizkuntza eta kulturak espainoltasunaren barrenean ulertu eta aitortzen zituena. Ordea, beste ikuspegiak ere indar handia zeukan.



***Hauxe zen Espainiako
lema ezagunetako bat:
“Kamarada! Judaismoa,
masoneria, marxismoa
eta separatismoa
jazartzeko betebeharra
duzu. Suntsitu eta erre
beren egunkariak, beren
liburuak, beren aldizkariak,
beren propaganda”***

Agintari frankistek euskara erabiltzea debekatu zuten Gipuzkoako hiriburuan: “Gaztelaniaz besteko hizkuntzak eta dialektoak hitz egiteko debekuari buruz xedatutakoa urratzen duen oro salatuko da”, agindu zuen Donostiako komandantzia militarrek 1937ko maiatzaren 29an. Tokiko hizkuntzen erabilera isunez zigor zitekeen, publikoan eta baita pribatuan ere. Ikasgeletan, erregela batez jo eta gogor zigortzen zituzten espainieraz mintzo ez ziren umeak. Klean eta hezkuntzan ez ezik, mezetan ere debekatu zuten euskara. Bizkaiko Gobernu Zibilararen 1949ko azaroko aginduak euskarazko idazkiak hilobietatik kentzeko agindu zuen. Euskaraz idatzitako hilarriak zementuz estali zituzten; isunak eta erregistroak iritsi zaizkigu horren lekuko.

***Tokiko hizkuntzen
erabilera isunez zigor
zitekeen, publikoan eta
baita pribatuan ere.
Ikasgeletan, erregela batez
jo eta gogor zigortzen
zituzten espainieraz
mintzo ez ziren umeak.***



Jose Antonio Agirrek UNESCOri 1952an bidali-tako mezuan, Espainian gertatzen ari zen hizkuntzen zapalkuntzaren berri eman zuen, eta euskal uni-bertsitatearen itxiera, armadak okupatutako elkar-te sozial eta kulturalak, euskarazko liburuen erretze masiboa, eta eskoletatik, bilkura publikoetatik, irra-ti programetatik, egunkarietatik eta aldizkarietatik euskara desagerrarazi izana aipatu zituen, besteak beste.

Ildo beretik, katalana eremu publikotik desa-gerrarazteko hartutako neurrien hainbat adibide dauzkagu. 1939ko martxoan Bartzelonako *El Noti-ciero Universal* egunkarian honela irakur zitekeen: “Oso estimagarria da katalana etxeko eta familiako giroan: oso estimagarria da, halaber, tradizioaren ikur gisa”. Egunkari berean, 1939ko apirilean, berriz, “Espainiaren handitasunaren kontrako faktorea” izendatzen zen katalana. Katalanez ziren antzezla-nak debekatu egin ziren. Administrazioan, funtzio-nario postu asko katalana ez zekitenei eman zizkie-ten. Hezkuntzan ere, beste eskualdeetatik etorritako irakasleak izendatu ziren: “Estatuaren zerbitzariak, zerbitzu-egintzetan, hizkuntza ofiziala ez ezagutzea edo erabili ohi ez izatea nahiko arrazoi justifikatua izan behar da Estatuko funtzionario izaera guztiz baliogabetzeko eta funtzio publikoetan jarduteko ezgaitzeko”.

Neurri horiez gain, Bartzelonako lehenengo go-bernadore zibila izan zenak 1940an funtzionario guztiei katalanez hitz egitea debekatzen zien zirku-lar bat atera zuen. Ezin zezaketen katalana erabili, ez erabiltzaileekin, ezta beren artean ere. “Datorren abuztuaren lehenengo egunetik aurrera, probintzia honetako probintzietako eta udal-korporazioetako bitarteko funtzionario guztiak, edozein kategoria-takoak direla ere, zerbitzu-egintzan, eraikin ofizialen barruan edo kanpoan, ofiziala ez den beste hizkuntza batean hitz egiten badute, kargugabetuta geratuko dira, ondorengo errekurtsorik gabe.”

Plazen eta kaleen izenetatik kendu zen katalana, plakak aldatuz: Plaça de Catalunya “Plaza del Ejér-cito Espanol“ bihurtu zen, Passeig de Gràcia “Paseo General Mola”, Diagonal, “Avenida del Generalísimo”, etab. Hiri eta herrien izenak espainoldu eta historian arrastoa utzitako katalanen estatuak suntsitu egin ziren. Komertzio ororen jabeek gaztelerara aldatu be-har zituzten beren idatziak. Hori egin ezean jasoko zituzten zigorrak zabaltzen zituen prentsak: isun al-tuak, baina baita espetxe zigorrak ere.

Debekuak soilik ez, propaganda izugarria egin zen gaztelaniaren alde eta beste hizkuntzen aurka. Espainia osoan zehar, kartelek eta kamioiek hone-lako mezuak zeramatzaten: “no ladres, habla la len-

gua del imperio”, “Si eres español habla español”, “Habla en cristiano”, “Sea caballero, hable en cas-tellano”. Eskualde elebidun guztiak estali zituzten propagandaz, eta ez bakarrik euskaraz, katalanez, valentzieraz eta galizieraz hitz egiten zen lekuetan; astur-leoneraz, aragoieraz, eta okzitanieraz mintzo ziren eskualdeak ere bai.

Horrek guztiak, noski, prestigio soziala gaztele-rarekin lotzea zekarren. Horri lotuta, gutxitutako hizkuntzetako hiztunengan nolabaiteko auto-gorroto baten garapena aipatzen da. Oroitaraz dezagun, fran-kismoaren aurreko urteetan, Kataluniako *Renaixença* izendaturiko katalanaren aldeko berpizkunde kultu-ralaren parekoa sortu zela Euskal Herrian (Euskal Pizkundera literatur mugimendua, lehen ikastolak, euskarazko aldizkariak, *Euskaltzaindiaren* sorrera...). Frankismoak eten egin zituen mugimenduok, eta mugimendu haietako hainbat kide fusilatu zituen (Lauaxeta eta Aitzol kasu) edota beste askok atze-rrira joan behar izan ziren ihesi. Ezin zaizkigu ordea ahaztu, hizkuntza horien egoeran eragin nabarmena izan zuten bestelako faktoreak: industrializazioaren eta hirien garapena, klase ertain baten zabalpena, hedabide handien sorrera, eskola orokortzea... De-na den, frankismoko azken hamarkadetan, berpiztu egin zen hizkuntza berreskuratzeko borroka.

**1939ko martxoan
Bartzelonako El Noticiero
Universal egunkarian
honela irakur zitekeen: “Oso
estimagarria da katalana
etxeko eta familiako giroan:
oso estimagarria da,
halaber, tradizioaren ikur
gisa”. Egunkari berean,
1939ko apirilean, berriz,
“Espainiaren handitasunaren
kontrako faktorea”
izendatzen zen katalana.**

**Debekuak soilik ez, propaganda
izugarria egin zen gaztelaniaren
alde eta beste hizkuntzen aurka.
Espainia osoan zehar, kartelek
eta kamioiek honelako mezuak
zeramatzaten: “no ladres, habla
la lengua del imperio”, “Si eres
español habla español”, “Habla en
cristiano”, “Sea caballero, hable
en castellano”. Eskualde elebidun
guztiak estali zituzten propagandaz,
eta ez bakarrik euskaraz, katalanez,
valentzieraz eta galizieraz hitz
egiten zen lekuetan; astur-leoneraz,
aragoieraz, eta okzitanieraz
mintzo ziren eskualdeak ere bai.**



1950eko hamarkada inguruan, malgutze bat ageri da hizkuntzekiko jazarpenean. Hizkuntza katalanaren kasuan, lehenago eta modu agerikoagoan gertatu zen.

FRANKISMOAREN AZKENENGO HAMARKADAK

1950eko hamarkada inguruan, malgutze bat ageri da hizkuntzekiko jazarpenean. Hizkuntza katalanaren kasuan, lehenago eta modu agerikoagoan gertatu zen, jarraian emango diren adibideok erakusten diguten bezala. 1944an, filologia erro-manikoko fakultateetan, legez beharrezko bihurtu zen filologia katalaneko ikasgaia ematea. 1945ean, gobernuak babestuta eta haien dirulaguntzarekin, katalan literaturako figura handienetako bat izandako Mossèn Cinto Verdaguereen mendeurrena ospatu zen. 1946an, Salvador Esprú poeta katalanez publikatzen hasi zen. 1946an, katalanezko antzerkia legezko bihurtu zen. Liburuen edizioa ere baimendu zen, baina liburu klasikoetara edo folklore liburuetara mugatuta. 1951n eta 1952an bi gramatika historiko katalan publikatu ziren. 1947an Joanot Martorell eleberri-saria eman zitzaion katalanez idatzitako lan bati. 1949an Víctor Català ipuin-eleberri saria sortu zen, baita Aedos biografia sariketak ere. 1951n, katalanezko poesiari estatu mailako sari bat eman zitzaion, espainolezkoaren pareko diru-kopururekin. Urte berean sortu zen katalanez idatzitako obretarako Ediciones Selecta, eta Josep Plak *El carrer estret* lanagatik Joanot Martorell saria jaso zuen.

Euskarari dagokionez, jarrera aldaketa mugatuagoa eta berantiarragoa izan zen. Horren arrazoia, euskal kulturaren eta oposizio politikoaren arteko harremana da, garai horretan indartzen ari zena. 1959an sortu zen Euskadi Ta Askatasuna erakunde

armatua. Erregimen frankistak zenbait ekimen kultural ez politizatu baimendu zituen, baina gehienbat elizaren barruan edo gune folkloriko edo inizatiba pribatu oso zainduetan. Obra filologiko “zientifiko” gutxi batzuk argitaratzea baimendu zen; esaterako, 1943an Luis Villasanteren *Gramática Vasca* eta 1947 eta 1958 urteen artean Manuel Larramendiren lan historikoak, “folklore” edo “eskualdeko hizkuntza” etiketen pean. Obren argitalpena onartzeko arrazoia beti zen “interes filologiko, historiko edo erlijiosoa”. Euskarazko aldizkari kulturalak ez ziren debekatu, baina betiere, behaketa zorrotzaren pean jardun behar zuten. *Eusko-Jakintza* (1947-1953), aldizkari zientifiko eta filologikoa, eduki politikorik ez zuelako baimendu zen. *Egan* (1950etik aurrera) Gipuzkoako Diputazioak argitaratua, erdi-ofiziala zen, euskaraz idatzia, baina oso kontrolatua. *Zeruko Argia* (60ko hamarkadan), aldizkari erlijiosoa zela-eta, prentsa katolikoaren markoan baimendu zen. Ezin genezake pentsa, ordea, aipatutako hizkuntzekiko jarrera aldaketa, inondik ere, erabatekoa izan zenik. Horren adibide izan daiteke 1965ean Loiolako irratia ixtea agindu zutela programa gehiegi zituelako euskaraz.

Katalanarekin alderatuta, jarrera aldaketa mugatuagoa eta berantiarragoa izan zen euskararena. Horren arrazoia, euskal kulturaren eta oposizio politikoaren arteko harremana da, garai horretan indartzen ari zena. 1959an sortu zen Euskadi Ta Askatasuna erakunde armatua.



Baina hizkuntzaren aldeko mugimendua indartsu zegoen, ikastolak sortzen hasi ziren berriro, frankismo aurreko bideari jarraipena emanaz. 1960ko hamarkada hasieratik gau eskolak antolatzen ziren, helduek euskara ikasteko. Hainbat aldizkari klandestino ere ematen ziren argitara. Mugimendu kultural indartsuak ari ziren sortzen hizkuntza horien inguruan. Katalunian *Omnium Cultural* eratu zen 1961ean, eta *Nova Cançó* kantagintza arloko mugimendua. Euskal Herrian, Kataluniatik zetorren haize berri hari oihartzun eginez, Euskal Kantagintza Berria sortu zen, eta nola ez, horren baitan, Ez Dok Amairu mugimendua (1965).

1964an, TVE telebista espainolean emititu zen katalanezko lehen telebista programa, eta bertatik igaroko ziren, besteak beste, *Nova Cançó* mugimenduko artista ugari. 1966an, Tarragona irratia katalanezko irakaskuntzari buruzko programa bat emititzen hasi zen, probintziako Informazio eta Turismo Ministerioak babesturik. 1967an, Bartzelonako Diputazioak

katalanezko klaseak ematea adostu zuen, bere meneko zentro kultural guztietan, eta Sant Cugat (Bartzelona) teologiako fakultatean Hizkuntza Katalaneko katedra sortu zuen.

1970ean, hezkuntzako lege orokorraren eskutik, hizkuntza “natiboak” baimendu ziren hezkuntzan. Hasieran mugatuta, baina 1975ean, Francok berak izenpeturik, gaztelania ez beste hizkuntzak erabili zitezkeela ezarri zen, haren hitzetan “hezkuntzako maila guztietan”, baina batxilergoan ezetz zehaztu zen. Urte berean, beste dekretu bat argitaratu zen, “hizkuntza horien ezagutza eta erabilera Estatuaren ekintzaren bidez babestuko da” zioena, eta “ahozko eta idatzizko hitza hedatzeko bitarteko guztiak” erabiltzea baimentzen zuen, baina gaztelania mantenduz “nazioaren hizkuntza ofizial eta espainiar guztien komunikazio-bide gisa”, “Estatuko goi-organoen, Administrazio Publikoaren, Justizia Administrazioaren, toki-erakundeen eta zuzenbide publikoko gainerako korporazioen jarduera guztietan”



erabiltzeko. Era berean, xedatu zen gaztelania “erabiliko dela horiei [erakunde publikoei] zuzentzen zaizkien edo haietatik sortzen diren idazki edo eskaeretan”. Horrekin, diktaduraren ia berrogei urteetan indarrean egon ziren hizkuntza periferikoei lotutako erabilera publikoaren debekuak ofizialki eta formalki altxatu ziren, baina gaztelania hizkuntza ofizial bakar gisa berretsi zen administrazio publikoaren edozein maila edo adierazpenetan.

Hil hurren zen erregimenaren irekiera politika euste- eta kontzesio-politikaren testuinguruan ulertu beharra dago. 1945etik aurrera, autoritarismo burokratiko, nazional katolizismo eta teknokrazia ekonomiko baterantz lekualdatuz joan zen erregimena. Falange ortodoxoaren gainbeheraz hitz egin daiteke. Falange ideologikoak pisua galdu zuen eta, erabakiak hartzerako orduan, haren elebakartasun erradikalaren ideiak zentrala izateari utzi zion.

Izan ere, erregimenak bere kanpo irudia hobetu beharra zeukan. Demokrazia europarrek elementu autoritariotzat zuten errepresio linguistikoa. Nazioarteko legitimazio beharrari lotuta, irekiera kultural mugatu hura Espainia moderno eta tolerante bat erakusteko ahalegina zen. Opus Deiko ministro berri teknokratek herrialdea modernizatzeko plana zeukaten. Haien helburua ekonomia zen, ez uniformetasun kulturala. Hori dela eta, politika pragmatikoago bat bultzatu zuten: lekuko kulturak turismoa erakartzen edo egonkortasun soziala lortzen laguntzen bazuen, ez zen arazo.

Erregimenak ulertu zuen errepresio kultural agerikoak gero eta gehiago elika zezakeela mugimendu sozialen, nazionalismoen eta borroka armatuaren indarra

Aldi berean, presio kultural eta soziala zegoen, aipatu gisan, Euskal Herrian, Katalunian eta Galizian berpizkunde kulturalak gertatzen ari baitziren. Katolizismoaren barrenean ere, tokiko hizkuntzen erabilera indartu egin zen. 60ko hamarkada langile greben, ikasle mugimenduen, euskal eta katalan nazionalismo berrituen eta borroka armatuaren testuingurua zen. Erregimenak ulertu zuen errepresio kultural agerikoak gero eta gehiago elika zezakeela mugimenduon indarra. Zentsuratu arren, ezin zituen guztiz erasan mugimenduok, kostu politikorik jasan gabe. Kalkulu politikoa hauze zen, beraz: kontrolatzea, gatazka gehiago sortu gabe. Adierazpen folkloriko edo kulturalak baimendu zituen erregimenak, guztia politiza zedila saihesteko.

1975eko dekretu baten eskutik, diktaduraren ia berrogei urteetan indarrean egon ziren hizkuntza periferikoei lotutako erabilera publikoaren debekuak ofizialki eta formalki altxatu ziren, baina gaztelania hizkuntza ofizial bakar gisa berretsi zen administrazio publikoaren edozein maila edo adierazpenetan

1950az geroztik egondako hizkuntza-politiken aldaketa pragmatismo politikoaren testuinguruan ulertu beharra dago, kanpo legitimazio, oposizioarekiko kalkulu, kudeaketa sozial, eta tokiko eliteekiko paktuari lotuta; baina, batez ere, hizkuntzen zapalkuntza politizaziorako aukera bihur zedin ekiditea zuten helburu, beste borrokekin bateratu ez zedin erregimen aldaketa integral baten alde

Ahaztu ezinekoa da, halaber, Katalunian eta Euskal Herrian, bereziki, frankismoa burgesia industrial oso garrantzitsuei lotuta zegoela. Elite horiek, kontserbadoreak eta gehienean ez nazionalistak izan arren, tokiko kulturarekiko sentsibilitatea zeukaten. Eta Francok haien kolaborazioa beharrezkoa zuen bere garapen ekonomiko eta bake sozialerako. Subertsibotzat ikusiak ez zeuden adierazpen kulturekiko tolerantzia selektiboa aplikatu zuten.

Dena den, hori guztia, deskonposizio fasean zegoen erregimen frankistaren irekieraren aldeko eta aurkako ikuspegien barne-tentsio horretan kokatu beharra dago, hiltzorian zegoen erregimenari jarraipena emateko nahi etsi batean.

Adierazpen folkloriko edo kulturalak baimendu zituen erregimenak, guztia politiza zedila saihesteko

ONDORIOAK

Hasiera batean, Falange Española alderdian tokiko hizkuntzak eta kulturak espainol nortasunaren parte eta Espainiaren aberastasun gisa kokatzeko ikuspegi bat egon bazen ere, separatismoaren aurkako gurutzada bortitzaren testuinguruan, propaganda eta debekuen bidez, gaztelania ez beste hizkuntzen aurkako hizkuntza-politika bortitza aurrera eraman zuen frankismoak.

1950eko hamarkadatik aurrera, ordea, hizkuntza politikan aldaketa bat ageri da. Era mugatu eta kontrolatuan, eta interes zientifiko, erlijioso edo folkloriko hutsari lotuta, tokiko hizkuntzetako argitalpen eta ekimen batzuk baimentzen hasi ziren. Hori pragmatismo politikoaren testuinguruan ulertu beharra dago, kanpo legitimazio, oposizioarekiko kalkulu, kudeaketa sozial, eta tokiko eliteekiko paktuari lotuta; baina, batez ere, hizkuntzen zapalkuntza politizaziorako aukera bihur zedin ekiditea zuten helburu, beste borrokekin bateratu ez zedin erregimen aldaketa integral baten alde. ●



Argitalpena
2025KO AZAROA
EUSKAL HERRIA

Koordinazioa,
erredakzioa eta
diseinua
**GEDAR LANGILE
KAZETA**

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER ETA
INSTAGRAM
@ARTEKA_GEDAR

Kontaktua
**HARREMANAK@
GEDAR.EUS**

Harpidetza
**GEDAR.EUS/
HARPIDETZA**

Edizioa
**ZIRRINTA
KOMUNIKAZIO
ELKARTEA**
AZPEITIA

Lege gordailua
SS-01360-2019

ISSN
2792-4548

Licencia


Editoreen oharra: Artekako artikuluetan ageri diren ideia,
baieztapen eta ondorioak artikuluko bakoitzaren egilearenak
dira.

arteka

